

Saila.: Gorputz eta Kirol Hezkuntza

Tutorea.: Luis Mari Zulaika

GRADU AMAIERAKO LANA

*IRAKASLE INKLUSIBOA, ETORKIZUNEKO IRAKASLEA? XXI. MENDEKO
GORPUTZ HEZKUNTZAKO IRAKASLE EREDUGARRIAREN BILA*



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua
25799- Gradu amaierako lana.
Laugarren maila. Euskara

Egilea:

- *Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es*

Aurkibidea

1 Sarrera:	4
1.1 Zergatik aukeratu gai hau:.....	4
1.2 Zer da eskola inklusiboa:	5
1.3 Heziketa fisiko inklusiboa:	6
2 Inklusibitatearen historia:	7
2.1 Segregaziotik behar bereziko hezkuntzara:	8
2.2 Behar bereziko ikasketatik ikasketa integratzailera:	8
2.3 Ikasketa integratzailetik inklusibora:	9
2.4 Inklusibitate kontzeptuaren Bilakaera:.....	10
3 Hezkuntza inklusiboak izan dituen oztopoak:	11
3.1 Oztopoak hezkuntza modalitate eta etapen arteko egonaldi eta progresioan:	11
3.2 Baliabideei eragiten dioten oztopoak:	11
3.3 Informazio eta formazio oztopoak:.....	12
3.4 Modelo tradizionaletik eratorritako oztopoak:.....	14
3.5 Diskriminazioetatik eratorritako oztopoak:.....	15
4 Oztopoei nola aurre egin:	16
4.1 Irakasleei buruzko dilemak:	16
4.1.1 Ikerketa.....	19
4.2 Curriculumentik:.....	26
4.3 Antolaketa, berrikuntza eta garapen profesionaletik:.....	28
5 Gaur egungo egoera:	30
5.1 Hezkuntza araudia:	30
5.2 Umearen garapenaren edukiak:.....	32
5.3 Hezkuntza inklusiboko datuak Espainian:.....	34
6 Irakasle inklusiboaren profila:	35
7 Inklusioa itsuekin:	38

7.1	hola	¡Error! Marcador no definido.
7.2	Itsutasunaren inklusioa hezkuntzan historian zehar:	39
7.3	Itsu eta ikusmen urriko pertsonen hezkuntza Espainian:	40
7.4	Itsu eta ikusmen urriko pertsonen hezkuntzarako baliabide eta bideak: ...	41
7.5	Itsu eta ikusmen urriko pertsonentzako heziketa fisikoa:	45
7.6	Informatikak aurkezten dituen aukerak:.....	49
7.7	Esperientzia praktiko berritzailea:	49
7.8	Nire esperientzia:.....	55
7.9	Proposamen praktikoak:.....	61
8	Bibliografia:.....	65

1 Sarrera

1.1 Zergatik aukeratu gai hau

Ni etorkizunean irakaslea izango naizela kontutan harturik, ikasleei ahal diedan heziketa hoberena eman nahi diet. Heziketa arloak, gauza guztiak bezala, urteak pasatu ahala eboluzio bat jarraitzen du, eta nik hurrengo pausu bezala inklusibitatea ulertzen dut. Ohituta gaude pentsatzera gorputz heziketako klaseetan talde homogeen bat izango dugula, baina errealitateak dio gizartean aniztasuna dagoela eta horrekin lan egin beharko dugula. Modu honetan, kontutan hartu behar dugu urritasunen bat duen pertsona ez dugula gizartean sartu behar, gizartearen parte delako, eta beraz, izan daiteke gure klaseetan ezgaitasunen bat duen ikasleren bat egotea, eta prestatuak egon behar gara.

Gainera, nik praktikatan, klase batean itsu bat izan dut, eta ikusi ahal izan dut hurbiletik zelakoa den egoera. Argi dago itsu batek ezin dituela gauzak ume normal batek bezala egin, eta horren aurka estrategia desberdinak bilatu behar genituen. Edozer gauza egitean, beragan pentsatu behar genuen, gauzak moldatzeko edota berari ekintza desberdin bat jartzeko. Ariketa batzuetan bai sartu ahal genuen taldearekin batera, baina beste batzuetan, bere kabuz beste ariketa bat egitea iruditzen zitzaigun egokiena. Ezgaitasun bat duen pertsona baten aurrean, irakaslean esperientzia gutxi, aurkako jarrera eta ezjakintasuna ikusi dut. Aurkako jarrera hau ezjakintasuna eta esperientzia faltagatik bultzatua dago, eta beraz esku hartzeko eremu argia ikusi dut.

Inklusibitate honen alde gaur egun lehenengo pausuak ematen ari dira, eta hori da nik landuko dudana. Orain arte oso gauza gutxi argitaratu izan dira irakasleek integrazio helburuak nola lortu ditzaketen gaiari buruz. Irakasleak kontziente izan

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

behar dira ikasle bakoitzaren behar indibidualez, eta ezagutza hori ezinbestekoa da ezintasuna ulertzeko eta moldatzeko erak jakiteko. Ikerketek diote muga nagusiena irakasleen jarreran dagoela eta hori izan beharko litzateke landu beharreko lehenengo gauza. Inklusioa sustatzeko irakasleen jarrera positibo batetik hasi beharko litzateke, eta horretarako formakuntza eta esperientzia ezinbestekoak ikusten ditut. Ze azken finean hezkuntza aurrera eraman behar dutenek ez badute inklusioan sinesten, nork egingo du?

1.2 Zer da eskola inklusiboa

Eskola inklusiboari buruz hitz egiten dugunean, zertaz ari gara?

Esaten da ikasketa mota hau eguneroko bizitzaren erreflexua dela, kalitatezko eskola bat, bazterketarik egiten ez duena. Bertan ikasle guztiak beharrezkoak dira, bakoitzaren desberdintasunak irakaskuntza prozesua aberasten duelako. Modu honetan ume guztiak hezkuntza prozesuan batera ibiltzen dira, eta honela, ezgaitasunak ez dituzten umeak, ume ezgaiak ez dituzte modu desberdinean begiratuko.

Orain, HSAOL egin zenetik 20 urte igarota, hainbat ikerlanetan eta eskolako eguneroko praktikan beha dezakegu lan-ildo beretik jarraitu behar dela, eta hauek dira kontutan hartu beharreko puntuak:

- 1.- Heziketaren ikuspuntua aldatu (Morín, 2001). Hurrengo milurtekoan, ikasleek «ikasten ikastea» da heziketaren helburua.
- 2.- Inklusioa indartzeko bidea da zeharkako materiak balioestea.
- 3.- Profesionalei formazioa eta laguntza erraztea.

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

Izan ere ikerketa batzuen arabera oraindik ere irakasleek ez dute jasotzen formakuntza nahikorik inklusio klaseei aurre egiteko. Prestakuntza falta eta prestakuntza ezegokia izanik, ezgaitasun desberdinak dituzten umeei aurre egiteko zailtasunak gainditu behar dira. Desinformazio hau, alde batetik inklusioko umeei dituzten ezgaitasunei buruzko informazio falta moduan, eta beste aldetik inklusioaren aspektu legalen informazio falta bezala nabaritzen dute irakasleek. (Gall et al, 1998).

Inklusioaren kontzeptua, ekintza-irizpide gisa, hezkuntza-ingurunean sortu zen; gaur egun beste ingurune batzuetan aplikatzen da, eta oro har, komunitatean. Nahiz eta inklusioaren onurak elkartasunean, lankidetzan eta antzeko printzipioetan oinarritu, ez dago ikerketa askorik ezintasunak dituzten eta ez dituzten hiritarrei horrek ekartzen dizkien abantailen inguruan.

1.3 Heziketa fisiko inklusiboa

Heziketa eredu honen oinarri bezala, nik heziketa fisiko inklusiboa ikusten dut, azken finean heziketa fisikoan bizitzako baloreak erakusten direlako, eta bertan umeen arteko elkarrekintza zuzena ematen delako. Beraz eskola inklusiboaren jarraibideak heziketa fisikoan erabiltzea da heziketa fisiko inklusiboa, hau da, bazterketarik egin barik, eta bertan ikasle guztiak beharrezkoak dira, bakoitzaren desberdintasunak irakaskuntza prozesua aberasten duelako.

Heziketa fisikoan inklusioa burutzea beste irakasgaietan baino konplexuagoa izango da, heziketa fisikoan gure gorputzaz baliatzen garelako ariketa fisikoak egiteko, eta ezgaitasunen bat duten umeei beste umeei baino zailtasun gehiago izango dituzte. Ume hauek muga fisiko zein mentalak izaten dituzte, ariketa normalak egitea batzuetan ezinezkoa bihurtuko da. Baina hor guk esku hartu behar dugu, estrategia

desberdinak bilatuz, ariketak egokituz, ume guztiak berdintasunean parte hartzeko, beti ere heziketa fisikoak dituen onurak oztopatu gabe.

Frogatua dago, heziketa fisiko inklusiboak onurak dakartzala, umeak motorki garatzen direlako, eta norberarekiko konfiantza hobetzen laguntzen du, baina hau lortzeko irakasleen eginkizuna ezinbestekoa da. Gainera, ikerketek esaten dute emaitza onenak lortzen direla irakaslea urritasunak dituzten pertsonatan espezializaturiko beste irakasle batez lagunduta badago. Honela ume guztientzat onura handienak lortzen direlako. Hala ere, laguntzak eskeintzerako orduan kontuz ibili behar gara egon direlako hainbat ikerketa isladatzen zutenak umeak gaizki sentitzen zirela jasotako laguntzaz, gehiegizkoa zela eta beraien independentziari zein beste ikasleekin izandako elkarrekintzari oztopoak jartzen zizkiola; horrexegatik, entsaio-errore politikak ikustean utzi egin behar zaie ere esperimentatzen horrela ere garatu egiten direlako eta beraien autokontzeptua hobetu egiten delako. (Watkinson and Goodwin, 2000).

2 Inklusibitatearen historia

Historian zehar, hezkuntzan aldaketa ugari egon dira, gauza guztiak bezala, hezkuntzak bilakaera bat jarraitzen du. Historian zehar, estrategia edota hezkuntza metodo desberdinak agertu izan dira. Hezkuntzak jaso duen eboluzioan zehar kontzeptu desberdinak agertu izan dira, hezkuntza definitu izan dutenak: segregazioa, behar bereziko eskola, integrazioa eta inklusibitatea. Azken urteetan inklusibitatearen inguruan aurrera pausuak eman izan dira, eta hori da jarraian azalduko dena, inklusibitate kontzeptu horren aurrekariak eta bere bilakaera. Hauek dira historian zehar izandako etapak:

2.1 Segregaziotik behar bereziko hezkuntzara

Laurogeiko hamarkadaren erdiko urteetaraino, ezgaitasunak zituzten umeen eskolaratzea zentro segregatuetan egiten zen. Hezkuntza segregatuak defendatzen du hezkuntza kalitate handikoa dela talde homogeneotan egiten bada. Ideia honek hezkuntza pobreago batean amaitzen du, batez ere segregazio hau jasotzen duen taldearentzat. Modu honetan, adibidez, denbora luzean zehar, ezgaitasunak zituzten pertsonak (bereziki mota intelektualekoak) ez ziren egokiak ikusten hezkuntza jasotzeko. (Martín et al, 2012)

Abuztuaren 4ko, 14/1970 Hezkuntza erreformaren hezkuntza eta finantziarioko lege orokorra (hezkuntzaren lege orokorra). Lege honek hezkuntza sistemaren eraldaketa suposatu zuen. Ezgaitasunak dituzten umeei dagokienez, lege honek adierazten zuen beraien eskolaratzea eskola arruntetan egin behar zela, hauetan behar bereziko gelak sortuz. Baina lege honen intentzioak oztopatuak izan ziren sistema orokorreko behar eta hezkuntzari bideratutako aurrekontu eskasagatik. Baina bai bultzatu zuen hezkuntza Espainiako etorkizuneko hezkuntza sistamarantz. Maiatzaren 23ko 1151/1975 dekretuagatik, Hezkuntza bereziko institutu nazionala sortzen da (INEE). Institutu hau behar bereziko hezkuntzaren perfektionamenduaren arduraduna zen, eta nahiz eta oztopoak egon, garrantzitsua izan zen ezgaitasunak zituzten umeen atentzioaren garapenerako. (Martín et al, 2012).

2.2 Behar bereziko ikasketatik ikasketa integratzailera

70. hamarkadaren amaieran, eta batez ere 80ko hamarkadan, ezgaitasunak dituzten pertsonentzako hezkuntzan aldaketa handi bat eman zen. Honetan eragina

izan zuen Estatu Espainiarreko konstituzioak, eta baita ere orientazio psikopedagogiko, teoriko eta enpirikoetan izandako aldaketek. Horietariko batek, Warnock informeak, Hezkuntza bereziaren aurre eta ondorengo bat markatu zuen 1978. urtean. Informe honetan, Bank-Mikkelsen 1959. urtean adierazi zuen normalizazioaren kontzeptua berretsi zen. Modu honetan, hezkuntza berezia behar duen pertsona bat, ez da pertsona "normal" baten bihurtu behar. Den bezala onartu behar da, bere beharrekin, besteen eskubide berdinekin, eta bere ahalmenak ahal duen hoberen garatzeko zerbitzuak eskainiz. (Dussan, 2010).

Informe horrek integrazio eskolar eta sozialerako proposamenak zituen, ezgaitasunen sailkapenaren abolizioa aurkezten zuen, eta hezkuntza behar bereziak kontzeptua (NEE: "necesidades educativas especiales") bultzatzen zuen. (Dussan, 2010).

Hezkuntza integrazio eremuan, ezgaitasunak zituzten umeak hezkuntza sistema arruntera egokitu behar ziren, errehabilitazio bitartez. Sistema arrunt honetan ez da aldaketarik ematen, eta bakarrik sartu ahal dira eskola segregatu baten, espezialistengatik errehabilitatuak izan diren ezgaiak. Ezgaitasunak zituzten umeen integrazioa gela arruntetan 1985ko martxoaren 20ko aginduarekin. Modu honetan behar bereziko zentroak eskola arruntetan integratu ezin ziren kasu larrietarako geratu ziren. (Martín et al, 2012).

2.3 Ikasketa integratzailetik inklusibora:

Integrazioaren garapenak eboluzio kontzeptual bat ekarri zuen, modu honetan, integrazio hitza inklusio hitzagatik aldatzen da. Hezkuntza inklusiboak hezkuntzaren ikuspegia aldatzen du, inklusibitatean gizartearen aniztasunak hezkuntza prozesua

aberasten du eta giza garapena laguntzen du. Hezkuntza inklusiboan komunitateko ume guztiak batera ikasten dute inolako bazterketarik egin barik. (Dussan, 2010)

Beraz, gizartearen aniztasuna onartuz, hezkuntza sistema ikasle bakoitzera egokitu behar da, eta ez alderantziz. Orain ez da talde berezi bati nola irakatsi, baizik eta nola irakatsi guztiei, ezgaitasunen bat duen umea beste bat gehiago izan behar da, bere euskarri eta ikasteko aukera berdinekin. Hau kontutan hartuta, irakasleak prestatuak egon behar dira aukera horiek edozein ikasleri aurkezteko, guztiek eskubide berdinak dituztelako. 1990.urtean urriaren 3ko Lege Organikoa onesten da 1/1990 (LOGSE), eta bertan arautzen da, behar bereziak dituzten umeen eskolaratze arrunta, ahal izan ezkerro. (Martín et al, 2012).

2.4 Inklusibitate kontzeptuaren Bilakaera:

Hezkuntza inklusiboaren aurrekari bezala jarri dezakegu "Salamancako adierazpena" 1994. urtean. Bertan lehentasuna hartu zuen behar bereziko umeenganako arreta. Modu honetan desberdintasuna normal bezala ikusten da eta aniztasunari erantzun ahal dioten hezkuntza sistemak agertzen dira. Beste hitz batzuetan, eskola arruntak inklusiboak bihurtu behar dira eta komunitateko ume guztiak hezteko gai izan behar dira. (Dussan, 2010).

Nahiz eta ez egon inklusibitatearen definizio guztiz bateraturik, autore desberdinek honela definitzen dute: Batzuk esaten dute inklusioa dela erakundearen transformazioa eta hezkuntza erantzuna pertsona bakoitzaren ezaugarri eta ahalmenetan oinarrituta. Beste batzuk ordea beste ikuspegi bat ematen diote, hauek ikusten dute eraikuntza filosofiko bat bezala, jarrera bat, eta balore eta sinesmen sistema bat. (Dussan, 2010).

3 Hezkuntza inklusiboak izan dituen oztopoak:

Behar bereziko ikasleen eskolaratzeari buruzko ikerketa desberdinak egoera anbibalente bat aurkezten dute, aurrerakuntza azpimarragarriekin, baina baita ere larritzeko moduko geldiuoneekin. Lorpenen artean, aipagarria da lortu den hezkuntza inklusiboko prozesua Haur Hezkuntzan. Baina Haur Hezkuntzatik at zailtasunak agertzen dira, eta ondoren adieraziko ditut hezkuntza inklusiboak izandako oztopo mota garrantzitsuenak. (Martín et al, 2012).

3.1 Oztopoak hezkuntza modalitate eta etapen arteko egonaldi eta progresioan:

Lehen Hezkuntzatik (LH) Bigarren Hezkuntzarako (DBH) behar bereziak dituzten ikasleen 'des-integrazioak' %35ari eragiten dio. Hau askoz nabariagoa da zentro publikoetan (100tik 41) pribatuetan baino (100tik 11). Gainera, Bigarren Hezkuntzatik Batxilerrera igarotzen direnak %3a bakarrik dira, eta baita formakuntza zikloetara eta kualifikazio profesionaleko programetara pasatzen direnak oso gutxi dira. Beraz datu hauek ikusita eskolaratze iraunkor bat ziurtatzea lehentasun bat izan beharko litzateke. (Martín et al, 2012).

3.2 Baliabideei eragiten dioten oztopoak:

Nahiz eta datu askok erakusten duten aurrerapauso nabaria egon dela eskola inklusiborantz, oraindik bide luzea daukagu egiteko. Aurrerapauso horren adibide argi bat hurrengo datua da: 2010. urtean behar bereziko ikasleen %78.4ek eskola arruntetan integraturik egin zuten, eta bakarrik %21,6ak eskola berezietan. Baina

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

kontutan eduki behar dugu eskola arrunt batean egotea ez dela inklusibitatearen sinonimo zuzena, EDAD (2008) inkestan atera zuten eskolatutako behar bereziko umeen %35ak ez duela banakako laguntzarik jasotzen. Ume hauen eskolaratzea aukera berdintasuneko hezkuntza batera orientatua izan behar da. (Martín et al, 2012).

LOEren 72. artikulua dioenez, eskolaratzea egin beharko da errekurtsioak emanaz, eta banakako neurri malguak hartuz. Modu honetan ezinbestekoak dira laguntza irakasleak eta orientatzaileak sartzera, eta aldi berean espezialitate guztietan adituak diren irakasleak. Administrazio publikoak zentroein beharrezko baliabideak eman behar die, eta hemen dago arazoa. Batzuetan zentroak eskatzen dituzte eta ez diete ematen, baina beste batzuetan, informazio edota aniztasunera egokitutako plan faltagatik, zentroek ez dituzte eskatzen. (Martín et al, 2012).

Heziketa fisikoaren kasuan, nahiz eta LOEk intentzio argiak izan, zentro gehienek ez dituzte kalitatezko hezkuntza bat ziurtatzeko baliabideak aniztasunaren aurrean. Ezinbestekoa da materiala eta instalakuntzak ikasleen beharretara egokituak egotea. Hau eraikitzen diren zentro berrietan ematen da, baina arazoa aurretik eraikitako zentroetan dago, eta baita arauak ez direnean ondo aplikatzen. (Rios, 2009).

3.3 Informazio eta formazio oztipoak:

Zentro askok adierazten dute behar bereziei buruzko informazio eta formazio gutxi dutela. Eskolaratze egoki baterako ezinbestekoa da irakasleak behar berezi horien aurrean erantzuten jakitea. Modu honetan, irakasleak izango dituen ikasleen ezaugarriei buruzko formazioa jaso beharko luke, bai hasieran, eta baita jarraipen bat

eramanez. Hau LOEn ez da guztiz argi uzten, honi buruzko artikuluetan. (Martín et al, 2012).

"Defensor del Menor de la Comunidad de Madrid"-ek egindako ikerketa baten (Marchesi et al., 2003) ikusi zen irakasleen %78ak ez zuela beraien burua prestaturik ikusten behar bereziko ikasleak hezteko. Hezkuntza integratuan, bakarrik agertzen da formazio espezifikoa behar bereziko ikasleetan Haur eta Lehen Hezkuntzan, baina ez Bigarren Hezkuntzan. Beraz guzti hau kontutan harturik, hezkuntzako profesionalak formatzeko, eguneratzeko eta perfektionatzeko programak sartu eta mantentzeko behar argi bat dago. (Martín et al, 2012).

Heziketa fisikoaren kasuan, formazio faltak beldur desberdinak eragin ahal ditu, ezezagunari zaion beldurrean oinarrituta. Batez ere lesioei zaien beldurra eta horrek dakarren ondorio legalak. Beldur hauek, modu batean ulergarriak direnak, kontutan eduki behar ditugun gauzak dira, eta ez dute inklusio faltsua lagundu behar, hau da, behar bereziko eta ume normalen arteko interakzioa asko gutxitzen denean, eta gainera beraien parte hartzea heziketa fisikoko klaseetan pasiboa denean. Hauek dira ohiko praktika batzuk: (Rios, 2009).

- Heziketa fisikoko klaseetan bakarrik fisikoki egotea, parte hartu gabe.
- Rol pasiboak edukitzea ariketatan.
- Lan teorikoz abusatu, beste taldekideak praktika burutzen duten bitartean.
- Ekintza indibidualak egitea beste taldekideetatik at.

Logikoki, formazio faltak behar bereziei erantzun desegoki bat ekarri dezake, eskola organizaziotik, curriculum, eta saioraino. Gainera estrategia desegoki hauek

ekarri dezakete motibazio galera taldean eta baita behar bereziko ikasleengan. (Rios, 2009).

Hauek dira ume baten hitzak: “I participated in PE once, but I was just a line judge. I just sat there and cheered and did all that. I just sit and watch them and clap and stuff”. Hau gertatzen bada, urritasunak dituzten umeei aktiboak izatea oztopatzen zaie, eta ez dute ikasten ezta onurarik lortzen. Gainera gazteak direnean esperientzia txarrak izaten dituzten umeak gero helduak direnean ez dute kirolarekiko pertzepzio ona. (Kodish, S, et al,2006).

Ikerketa honetan ikusi zen, pertsona autista hauek aktiboak izateko intentzioa dutela. Ikasle hauek gogo gehiago dute ariketa fisikoak egiteko positiboki prest badaude, eragin soziala jasotzen badute, eta arrakasta lortuko dutenaren ustea badute. Gainera, beste ikerketa batzuetan ez bezala, ikerketa honetan ume hauen jarrera kontutan hartu zen helduen influentziarik gabe. (Kodish, S, et al,2006).

3.4 Modelo tradizionaletik eratorritako oztopoak:

Hezkuntza inklusioa lortzeko eskola tradizionalak eraikitako oztopoen kontra borrokatu behar da. Kultura eskolar hauek behar bereziak dituzten umeak berdintasunean eskolaratzeko, ikasi eta parte hartzeko aukerak mugatzen dituzte. Eredu horien kontra, eta gero eta gehiago kontrastatuak izan diren ebidentzien aldetik, hauek dira zenbait ideia inklusioaren helburua lortzeko: (Martín et al, 2012).

- Talde homogeenok (hezkuntza segregatua) ez dute hezkuntza prozesua laguntzen.

- Hezkuntza bereziko zentroak ez dute frogatu besteak baino efektiboak direla, ikasketa maila berdina delako bietan, eta eskola arruntetan arlo soziala asko hobetzen da.
- Hezkuntza bereziko zentroak ez dute umearen gizarteratzea laguntzen, eta eskola emaitzen itxaropenak baxuagoak jartzen dituzte, kalitate baxuagoko hezkuntza eskainiz.

Heziketa fisikoaren kasuan, familia faktoreak eragin handia dauka. Familiaren bere umea lesionatzeko beldurra, eskolarekin kolaboratzeko gogo faltarekin batera, eta gehiegizko babeseko jarrerarekin, aurretik definituriko inklusio faltsuan eratorri daiteke. Beste jarrera batzuk ere badaude, ikaslearen gutxiestea, eta bere kontrakoa diren itxaropen irrealetara. (Rios, 2009).

3.5 Diskriminazioetatik eratorritako oztopoak:

Nahiz eta hezkuntzaren aldaketen orientazioa egokia izan, oraindik aurkitu ditzakegu zenbait elementu diskriminatzaileak. Askok pentsatzen dute inklusibitatearekin ezgaitasun gabeko umeen zein behar bereziko umeen hezkuntza prozesua oztopatuko dela. Portaera diskriminatzaile horien kontra ISEI-IVEI (2002) informeak ondorengo emaitza positiboak nabarmentzen ditu: (Martín et al, 2012).

- Ezgaitasunik gabeko ikasleetan ez dago desabantailarik integrazioa burutzen ez duten zentroekin konparatuta.
- Bai ezgaitasun gabeko ikasle eta baita integraturik dauden behar bereziko ikasleak, sozialki asko garatzen dira, eta talde interakzioaren handitzeko eta bakarkako ekintzen gutxitzerako joera bat dago.
- Integraturiko ikasleen eboluzioa beraien taldekideen jarraibide berdinak jarraitzen ditu.

Beste ikerketa batean gurpildun aulkian ibiltzen ziren umeen inklusioak zuen inpaktua ikusi nahi zuten. Ikerketa honetan ikusi zen arazo gabeko umeen garapen motorra ez zela kaltetua izaten klasean ezgaitasun bat duen ume bat izateagatik, eta gainera ikasleak inklusibitatearen alde agertzen zirela. Modu berean gurpildun aulkian ibiltzen ziren umeen ikasketa prozesua ez zen mugatzen, eta sozialki asko garatu ziren. (Kodish, S, et al,2006).

4 Oztopoei nola aurre egin:

4.1 Irakasleei buruzko dilemak:

Argi dago, irakasleen formakuntza falta oztopo nagusi bat dela, horrek irakasleengan aurkako jarrera eta eskola inklusiboaren kalitate falta ekartzen duelako. Horren aurrean, hainbat dira irakasleen inguruan agertu diren dilemak.

Hasteko, irakasle espezialistak edo orokorrak behar dira hezkuntzaren garapenerako, edo biak beharrezkoak dira? Irakasle espezialistak, behar bereziko umeen beharretan adituak dira, baina ez daukate formakuntza orokor bat hezkuntzaren inguruan. Beraz, ezin dute irakasle bezala lan egin, baina bai laguntza bezala zentro batean irakasle batentzako. Irakasle orokorren egoera guztiz kontrakoa da, hauek hezkuntzaren inguruan formakuntza orokor bat daukate, nahiz eta gero irakasgai baten edo batzuetan adituak izan, baina ez daukate formaziorik umeek izan ahal dituzten urritasunen inguruan. Hau ikusita, lehenengo ideia izango litzateke, irakasleei laguntzeko irakasle espezialista bat edo batzuk egotea zentro guztietan, modu honetan hezkuntza indibidualizatu bat burutu ahal izateko, edozein direla umearen ezaugarriak. (Mata, & Ortega, 1999)

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

Baita agertzen ari dira joerak aurrean definituriko irakasleak bateratzeko, hau da, irakasle orokor baterantz, irakasgaiak jakiteaz aparte umeek izan ahal dituzten urritasunen inguruan formatua dagoena. Honela ez litzateke bestelako irakasle laguntzailerik beharko, eta modu baten hezkuntza sistemarako mesedegarria izango litzateke baliabide aldetik kostua baxuagoa izango litzakelako. Baina beste aldetik, joera honen kontra irakasle espezialistak daude, beraien lan esparrua erasotua ikusten dutenak. Baina irakasle orokor batek ez du inoiz izango espezialistak duen espezifikotasun maila, eta beraz, irakasle laguntzaile baten laguntza positiboa izango litzateke estrategiak eta ariketa egokituak egitean. (Mata, & Ortega, 1999)

Honetaz aparte, lantzen ari den beste gai bat honako hau da: formazioa kategorikoa edo generikoa izan behar da? Generikoa izango litzateke orain arte egon den formakuntza, hau da, batzuk espezializatzen dira behar berezietan, eta beste batzuk irakasgai desberdinetan. Kategorikoa izango litzateke, adibidez, behar berezien inguruan ikasi ahal izateko lehenengo hezkuntza orokorrean ikasi behar izana. Honela ikasketa prozesua luzatuko litzateke, hezkuntzaren kalitatea hobetuz. (Mata, & Ortega, 1999)

Nire ustez irakasle guztiek urritasunen inguruan formakuntza minimo bat izatea ezinbestekoa da kalitatezko hezkuntza sistema batentzako. Baina ni praktikatan urritasun bat zuen kasu bat ikusita, espezialista laguntzaile baten laguntza beharrezkoa ikusten dut. Denbora nahiko galtzen da, ume hauei egin behar zaien indibidualizazioa beste umeena baino askoz handiagoa eta zehatzagoa delako. Irakasle espezializatu horrek denbora hau aurrezten lagunduko luke, eta baita ere estrategia eta ariketa espezifikoekin programa guztiz indibidualizatu bat burutu. Beraz niretzat kalitatezko hezkuntza baterako, zentroan irakasle arruntak urritasunen

inguruan informatuak egoteaz aparte, irakasle espezialista bat edo batzuen (ikastetxeak dituen ume kopuruaren arabera) parte hartzea aberasgarria izango litzateke.

Irakasleen formakuntzarekin jarraituz, aurten, IVEF-eko 4. mailan inklusioari buruzko irakasgai bat izan dugu. Nire bizitza osoan lehenengo aldia izan da honelako irakasgai bat izan dudala, eta nahiko aberasgarria ikusi dut. Horregatik, ikerketa bat egin nuen, inkesta bat pasatuz irakasgaiarekin hasi baino lehen eta irakasgaiaren ondoren. Honekin jakin nahi izan nuen zein zen inklusioari buruzko jarrera irakasgaia izan baino lehen eta ostean, ea aldaketarik ekartzen dituen pentsatzeko eran. Hau izan zen nik pasatutako inkesta:

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

4.1.1 Ikerketa

Inkesta:

Actitudes del profesorado hacia la inclusión

Nombre:

Edad:

Plan de estudio:

Años de experiencia en educación:

Trabaja actualmente en:

Experiencia en el ámbito de la educación especial:

Deficiencias con las que ha trabajado:

Ha realizado estudios sobre Necesidades Educativas Especiales:

Instrucciones: *Deberá responder los primeros 36 ítems a favor o en contra (SI-NO). Los ítems 37 a 40 son preguntas abiertas donde deberá completarse la frase así como explicar las razones de tu decisión.*

1. Los que están a favor de la inclusión de alumnos/as especiales en clases ordinarias, en realidad no están interesados por la calidad de la educación.
2. Si los que defienden la integración se tomaran el tiempo necesario para comprobar lo que ocurre con los alumnos/as especiales incluidos en las escuelas ordinarias, terminarían por recomendar aulas y centros especiales para estos alumnos.
3. Los responsables de la administración que están a favor de la inclusión están mas interesados en decisiones de tipo financiero que en la adecuación educativa de las escuelas.
4. Cuando los alumnos/as especiales son incluidos en aulas ordinarias, ello se hace normalmente en contra de la opinión del profesorado de dichas aulas.

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

5. La inclusión de niños/as especiales en aulas ordinarias disminuye la calidad de la educación para todo el alumnado.
6. La inclusión en clases regulares ayuda a los niños especiales a desarrollar una auto-imagen positiva.
7. La inclusión tiende a ser impuesta y no elegida por el profesor libremente.
8. Al alumnado con necesidades educativas especiales se les podría atender mejor en clases especiales de educación especial.
9. El movimiento hacia la inclusión es un asunto más de tipo legal y político que educativo.
10. Las clases específicas de educación especial facultan al profesorado para proporcionar una instrucción más adecuada a sus alumnos que la que se podría dar en clases inclusivas.
11. Los/as niños/as con necesidades educativas especiales que son atendidos en aulas específicas tienden a estar socialmente aislados.
12. La educación de niños/as especiales en aulas ordinarias no es lo mejor, ni para ellos ni para sus compañeros/as no deficientes.
13. La educación de los/las alumnos/as especiales en clases específicas dificultan su aceptación por parte de los/las alumnos/as normales.
14. En teoría, la integración parece una buena idea, pero en la práctica el alumnado de inclusión tiene serias dificultades para adaptarse a las aulas.
15. Las clases ordinarias ayudan a preparar a los/as niños/as deficientes para vivir bien adaptados en su contexto.
16. Las aulas cerradas de educación especial no pueden atender las necesidades sociales de los/as niños/as deficientes.
17. La inclusión de los niños/as deficientes en aulas normales conduce a una ruptura en las actividades rutinarias de la clase.

18. Los/as niños/as que asisten a las aulas específicas (cerradas) de educación especial tienen más posibilidades de ser percibidos como diferentes que si asisten a clases ordinarias.

19. El problema de incluir a un/a niño/a especial en un aula ordinaria es que se consume mucho tiempo y atención del profesor.

20. La inclusión de niños/as con necesidades educativas especiales requiere un reentrenamiento intensivo del profesorado de aula ordinaria para poder afrontar con éxito el trabajo de los alumnos/as.

21. La inclusión de niños/as deficientes con niños/as normales proporciona a los/as deficientes modelos de conducta apropiada.

22. La eficacia docente del profesorado en las aulas inclusivas se reduce, puesto que debe atender a los/as alumnos /as que tienen muy diferentes niveles de capacidad.

23. Los niños/as deficientes no sacan provecho de asistir a las aulas ordinarias.

24. El profesorado de las aulas ordinarias posee la experiencia suficiente para trabajar con niños/as con necesidades educativas especiales.

25. Me siento mal cuando trabajo con niños/as deficientes porque no sé cómo tratarlos.

26. Cuando trabajo en mi aula y hay niños/as con necesidades educativas especiales evito hacer trabajos en grupo porque no sé cómo organizarlos.

27. Si tengo alumnos/as con necesidades educativas especiales me siento incomodo/a porque no sé si la distribución en grupos heterogéneos es mejor que los grupos homogéneos.

28. La segregación de los/as deficientes en aulas cerradas libra a los/as niños/as normales de tener que interactuar con ellos/as.

29. Si tengo en el aula a un niño/a con discapacidad estoy incómodo/a porque no sé si las actividades que preparo son las adecuadas y se podrá hacerlas.

30. La presencia en un aula de un niño/a deficiente hace que el progreso de sus compañeros/as sea más lento.

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

31. La asistencia al aula de educación especial provoca en los alumnos diferentes sentimientos de ser rechazados.

32. La conducta en clase de un/a niño/a con necesidades educativas especiales requiere más paciencia por parte del profesorado que la de un niño/a normal.

33. La conducta en clase de un/ niño/a con necesidades educativas especiales porque no sabe cómo tratarlos.

34. La integración de niños/as con necesidades educativas especiales requiere cambios significativos en los procedimientos que utiliza el docente en sus clases.

35. Los/as profesores/as de las clases ordinarias tienen entrenamiento suficiente para enseñar a niños/as con necesidades educativas especiales.

36. La mayoría de las cosas que los docentes hacen con los/s alumnos/as normales en clase son apropiadas para los/as alumnos/as con necesidades educativas especiales.

37. Si tengo que trabajar con niños/as deficientes prefiero a los deficientes:

38. Si tengo que elegir entre una clase ordinaria y otra de inclusión, prefiero:

39. Si pudiera mejorar algo de mi centro para que la inclusión tenga más éxito sería:

40. La dificultad para que la inclusión sea algo verdadero es:

41. Si tuviera un hijo con deficiencias, preferiría que estuviera en integración: SI
- NO

Comentario:

Gaztelaniaz pasatu nuen IVEF gaztelaniazko taldea ere badagoelako eta ikuspuntu gehiago eduki ahal izateko. Bai edo ezezko 36 galdera dira, ondoren 4 garatzeko galdera, eta azkenik biak batzen dituen galdera orokor bat. Galdera guztietan aukera zuten ez erantzuteko, eta horregatik emaitzetan ikusiko da lagingaren kopuru guztia ez dela betetzen galdera batzuetan baiezko eta ezezko erantzunekin. Behin datu guztiak

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

taula baten jarrita, zenbat baiezko eta zenbat ezezko analisia egin nuen, aldaketarik egon ziren ebaluatzeko.

Analisia:

Analisi honetan, 41 galderetatik aldaketa adierazgarri bat aurkeztu duten galderak baino ez ditut hartu, beste galderatan emaitzak berdinak zirelako pre eta post inkestatan. Irakasgaia baino lehen pasatutako inkestan 44 ikaslek parte hartu zuten, eta ondoren bakarrik 27k, oso zaila da jende guztia harrapatzea klase baten, gehienak hautazkoak direlako.

Lagin kopurua: Pre: 44 ikasle Post: 27 ikasle

3. Los responsables de la administración que están a favor de la inclusión están mas interesados en decisiones de tipo financiero que en la adecuación educativa de las escuelas.

Pre: BAI: 16 EZ: 22 Post: BAI: 4 EZ: 20

Ezezko kopurua igotzen da eta baiezko kopurua jaisten da. Gehiengoak uste du administrazioek ekintzak burutzen dituztela umeen garapen integralari begira, alderdi ekonomikoa alde batera utziz.

4. Cuando los alumnos/as especiales son incluidos en aulas ordinarias, ello se hace normalmente en contra de la opinión del profesorado de dichas aulas.

Pre: BAI: 10 EZ: 19 Post: BAI: 2 EZ: 16

Baiezko kopurua jaisten da. Gehiengoak uste du irakasleek ezgaitasunak dituzten umeak onartzen dituztela jarrera egokiarekin.

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

7. La inclusión tiende a ser impuesta y no elegida por el profesor libremente.

Pre: BAI: 20 EZ: 13 Post: BAI: 5 EZ: 15

Ezezko kopurua igo eta baiezkoa jaitsi. Gehiengoak uste du irakasleak erabaki behar duela.

14. En teoría, la integración parece una buena idea, pero en la practica el alumnado de inclusión tiene serias dificultades para adaptarse a las aulas.

Pre: BAI: 27 EZ: 14 Post: BAI: 10 EZ: 16

Baiezko kopurua jaitsi eta ezezkoa igo. Ikasgaiari zehar ikasi dugu irakasleak baliabide nahikoak dituztela klaseak egokitzeko.

19. El problema de incluir a un/a niño/a especial en un aula ordinaria es que se consume mucho tiempo y atención del profesor.

Pre: BAI: 25 EZ: 18 Post: BAI: 9 EZ: 17

Baiezkoak jaitsi eta ezezkoak igo. Irakasleen formakuntza egokiarekin lortu ahal da klasea modu aberasgarri batean jarraitzea guztiak batera, beti ere, bakoitzaren gaitasunak kontutan hartuz.

25. Me siento mal cuando trabajo con niños/as deficientes porque no sé cómo tratarlos.

Pre: BAI: 16 EZ: 23 Post: BAI: 4 EZ: 21

Ezezkoak igo eta baiezkoak jaitsi. Ezgaitasunak dituzten umeen aurreko ezjakintasuna gutxitu da, eta horrek ekarri du euren burua kapaz ikustea inklusio klase bat aurrera eramateko.

29. Si tengo en el aula a un niño/a con discapacidad estoy incómodo/a porque no sé si las actividades que preparo son las adecuadas y se podrá hacerlas.

Pre: BAI: 22 EZ: 19 Post: BAI: 5 EZ: 18

Baiezkoak jaitsi eta ezezkoak igo. Ezgaitasunak dituzten umeen aurreko ezjakintasuna gutxitu da, eta horrek ekarri du euren burua kapaz ikustea inklusio klase bat aurrera eramateko.

38. Si tengo que elegir entre una clase ordinaria y otra de inclusión, prefiero:

Pre: CLASE ORDINARIA: 25 CLASE INCLUSION: 16

Post: CLASE ORDINARIA: 6 CLASE INCLUSION: 14

Joera argia ikusten da inklusiorantz, eskola arrunta aukeratu duten kopurua asko jaitsi da portzentajea.

Konklusioak:

- Lagin kopurua txikiagoa izanik datuak ez dira guztiz fidagarriak, hala ere joera aldaketa bat ikusteko balio izan zait.
- Orokorrean inklusiorantz joera ikusten da (38. galdera), irakasgaia burutu ondoren.
- Ezgaitasunak dituzten umeen aurreko ezjakintasuna gutxitu da, eta horrek ekarri du euren burua kapaz ikustea inklusio klase bat aurrera eramateko.
- Inklusioaren inguruko irakasgai baten garrantzia modu baten frogatu dut, nolabait etorkizunean aurkituko ditugun egoerei aurre egiteko laguntza suposatzen duelako. Gainera pentsaera aldaketa bat eragiten du, eta ikuspegi desberdin bat ematen digu hezkuntzaren inguruan.

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

4.2 *Curriculumetik:*

Helburua da klase guztiarekin lan egin ahal izatea, honetarako klaseko ikasle guztiekin konektatzeko modua aurkitu behar dugu, eta aldi berean ume bakoitzari esperientzia egokitu. Curriculum eraginkor baten bitartez kalitatezko hezkuntza bat lortu nahi da. Beraz, planteatzen den curriculumak honako ezaugarriak ditu: aniztasunari irekia, ulerkorra, parte-hartzailea eta demokratikoa, non irakaslea hezkuntza errazten duen, ez bakarrik curriculumak transmititu. Hau kontutan edukita curriculum inklusiboak honako ezaugarriak ditu: (Rios, 2009)

- **Orokor eta bihurtgarria:** Ikasleak hezkuntza erreferentziako marko kurrikular berdinean garatzen dute, baina ikasleen ezaugarrietara egokitua, gizartearen kultura aniztasuna islatuz.
- **Kooperatiboa:** Kooperazioan oinarrituz, lehiakortasuna sustatu barik.
- **Erabilgarri, praktikoa eta erreflexiboa:** ikasketak nabari eta iraunkorrak izango dira, eta irakasterakoan edukietara hurbilketa bat bilatu behar da, errealitate eta analisi kritiko eta erreflexiboaren arteko oreka bilatuz.
- **Morala:** edukiak ikuspuntu etikoekin erlazionatu behar dira.
- **Koherente eta planifikatua:** ikasle guztiak garapen aukera berdinak izango dituela bermatuz.

Ford, Davern eta Schnorr-ek (1999) adierazi zuten, ikasle guztientzako planifikazio bat egiteko, ondorengo bost estrategiak kontutan eduki behar direla: (Rios, 2009)

- 1. Ez alde batera utzi hezkuntzaren helburu orokorren garrantzia:** Ikasle guztiek hezkuntza helburu berdinak garatzea oinarritzat da, lortutako garrantzi eta emaitza mailak onartuz, bakoitzaren ezaugarrien arabera.
- 2. Marko kurrikular komuna diseinatu:** marko kurrikular bat non beharrezko egokitzapen kurrikularrak egin ahal diren, ikasle zehatzak besteetatik banandu barik.
- 3. Esanahietan aberatsa den curriculuma aurkeztu:** Hezkuntza esperientziak ikasle guztientzat zentzua eduki behar dute.
- 4. Banakako emaitzak ebaluatu, errendimenduan oinarrituz:** Irakasleak ikasleek lorturiko gaitasun motei buruz informatuko du, lortutako puntuazioetan zentratu barik.
- 5. "Ezkatuko" curriculumaren garrantzia presente izan:** Curriculum idatzian esplizituki agertzen ez diren gauzak. Ikasleak eskolan esperientzatzen duena, esplizituki irakasleak irakatsi nahi dituen edukietatik at.

Guzti honi gehitu ahal diogu, autore askok esaten duten bezala, Stainback (1999), Giangreco (1999), Ainscow (2001), beste autore askoren artean, curriculum bat ikasle guztientzat eraginkorra izateko, honakoak bete behar ditu: (Rios, 2009)

- Oreka bat izan behar du errendimendu akademiko eta funtzional, eta aspektu pertsonal eta sozialen artean.
- Komunitatearen garrantzia kontutan eduki, komunitate anitz eta zabala. Bertan pertsona guztiak onartuak eta lagunduak sentitzen dira. Kolaborazioak ikasle eta irakasleen artean curriculumaren inguruko erabakiak hartzeko orduan.

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

- Hezkuntza estrategia berriak erabiltzea, talde lanaren eta pertsonen arteko komunikazioaren garrantzia onartuz.

Guztien hezkuntza hobetzeko helburuarekin, hezkuntza kooperatiboa estrategia metodologiko gakoa bihurtzen da. Johnson eta Holubec (1999) estrategia honen onurak hiru ardatzetan zentratzen dituzte: (Rios, 2009)

1. Ikasle guztien ikaskuntza hobetzen du, honen barruan zailtasunak dituztenak eta talentu apartekoak daudelarik.
2. Taldea kohesionatzen du eta ikasleen arteko erlazioak errazten ditu, aniztasuna aberasgarri ikusten den komunitate bat sortuz.
3. Ikasleari baliabide experimental bat ematen dio, garapen sozial, psikologiko eta kognitiboa errazten duena.

4.3 Antolaketa, berrikuntza eta garapen profesionaletik:

Inklusibitatearen garapena lortzeko, beharrezkoa da eskola, organizazio bezala transformatzea. Hauek dira ikuspuntu inklusibo batetik eskolaren ezaugarri idiosinkratikoenak: (Rios, 2009)

- Estructura bertikalak horizontaletan transformatzea, zentroaren funtzionamendu modeloa non erlazioak eta komunikazio plurala errazten diren, eta estructura hierarkiko piramidaletik aldentzen dena.
- "Profesionalizatzeko interaktibo" bat lortzea, hau da, erabakiak hezkuntza komunitatearen artean hartzea, gaitasun kritiko eta erreflexiboa

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

garatuz, eta berrikuntza eta garapen profesionala erraztuz. Modu honetan, Ainscow-ek (2001) esaten zuen beharrezkoa dela komunean lan egiteko era desberdinak bilatzea, planifikazio kolaboratiboa azpimarratuz.

- Eskola zentroak autonomoak izan behar dira, inguruneari eta ikasleei egokituak, inolako zentralizazio neurriak jarraitu barik.
- Eskolaren norabidea ere egokitu behar da eskola inklusibora, aldaketetarako prest dagoen zuzendari profil bat behar da. Adostasuna bilatuz partekatutako proiektuetan, klaustroko kideei erantzukizunak emanez, eta bere lidergoa arinduz egokituriko neurrien garapenean, "Lidergo eraginkorra".

Baina, zelan jarri inklusioaren printzipioak martxan ikasgela baten? Gela hauek banakako desberdintasunen ulerkuntzan oinarritzen dira, ikasleak gai izan behar dira hezkuntza erantzukizunak partekatu eta onartzeko. Flexibilitatea ezinbesteko ardatza da hau posible izateko, aldaketari egokitu zurruntasuna alde batera utziz. Honela, dituzten baliabide guztiak erabiliko dituzte ikasle guztiei hezkuntza erantzun bat emateko, ez bakarrik behar bereziak dituztenei. Leku batzuetan ere martxan jarri dira (Ainscow 2001) "inklusiari buruzko lan taldeak", hauetan, irakasleak, ikasleak, gurasoak, aholkulariak, administrazioko ordezkariak eta espezialistak parte hartzen dute. Beraien egiteko nagusia ikasle guztientzako inklusio errealeko plan bat garatzea da. (Rios, 2009)

5 Gaur egungo egoera:

5.1 Hezkuntza araudia:

Integrazioari buruzko Espainiako legeria:

Abuztuaren 4ko **14/1970 HEZKUNTZA LEGE OROKORRAk I. titulu**an hezkuntza-sistema jorratzen du; eta **VII. atalburuan**, zehazki, hezkuntza berezia eta haren helburuak. Honatx hezkuntza bereziari dagozkion artikulua, era laburrean:

49. artikulua. Hezkuntza bereziaren helburua da ezinduak gizartean eta lan-munduan barneratzeko prestatzea, autonomia lortuz eta gizarteko parte sentituz.

50. artikulua. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak erraztuko ditu behar bereziko ikasleen diagnostikorako beharrezko diren baliabide materialak eta pertsona espezializatuak. Irakasleen eta beharrezko pertsonen formazioa bideratzen saiatuko da, helburu bera duten beste ministerio, elkarte eta korporazioekin elkarlanean.

51. artikulua. Ezinduaren anomaliak hala eskatzen duenean, zentro espezializatura eramango da ikaslea; baina, gainerako kasuetan, unitate bereziak sortuko dira ikasle horiek zentro normalizatuetan hezteko.

23. artikulua-bat. Honela dio, hitzez hitz: «El minusválido se integrará en el sistema ordinario de la educación general, recibiendo, en su caso, los programas de apoyo y recursos que la presente Ley reconoce».

23. artikulua-bi. Hezkuntza berezia emango zaie hezkuntza-sistema arruntean integratu ezin diren ezinduei, modu iragankorrean edo behin betikoan.

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

24. artikulua. Egindako diagnostikoaren balorazio orokorrak zehaztuko du heziketa bereziaren beharra.

25. artikulua. Honela dio, hitzez hitz: «La educación especial se impartirá en las instituciones ordinarias, públicas o privadas, del sistema educativo general, de forma continuada, transitoria o mediante programas de apoyo, según las condiciones de las deficiencias que afectan a cada alumno y se iniciará tan precozmente como lo requiera cada caso, acomodando su ulterior proceso al desarrollo psicológico de cada sujeto y no a criterios estrictamente cronológicos».

26. artikulua. Heziketa berezia prozesu integrala, malgua eta dinamikoa da; modu pertsonalizatuan ezarri behar da, doako eta nahitaezko irakaskuntza-maila ezberdinetan. Era berean, honako helburu hauek definitzen ditu irakaskuntza berezian:

- a) Urritasunak gainditzea eta horrek eragindako ondorioak.
- b) Autonomia handiagoa eskainiko dien ezagutzak eta ohiturak lortzea.
- c) Pertsonalitatearen garapen harmonikoa errazteko gaitasunak garatzea.
- d) Beren onurarako gizarteratzea.

27. artikulua. Heziketa berezia zentro berezietan gauzatuko da, soilik urritasun-mailak hala eskatzen duen kasuetan. Zentro bereziak eta zentro arruntak elkarlanean arituko dira, eta ikasle horien integrazioa erraztuko duten trantsizio-unitateak egongo dira bertan.

28. artikulua. Hezkuntzan integrazioa aurrera eramateko beharrezkoa den langileriaz ari da. Diziplinarteko langileriak, gaitasun tekniko espezializatua izateaz gain, beharrezko esperientzia eta jarrera izan beharko ditu. Bana-banako orientabide pedagogikoak gauzatuko dituzte, eta zentroko irakasleei dagokie horiek ezartzea.

Modu berean, zentroarekin elkarlanean arituz, ezinduaren integrazio-prozesuaren jarraipena eta aldi behingo ebaluazioa egingo dituzte.

5.2 Umearen garapenaren edukiak:

Diputatuen Kongresuak 1990eko irailaren 13an onetsi zituen Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako **Lege Organikoak**;

hitzez hitz, honela dio **1. artikuluko** lehenengo puntuan:

«Hezkuntza sistema espainiarra, konstituzioa osatzen duten printzipioen arabera eratua izan dena eta uztailaren 3an sortutako 8/1985 lege organikoaren esanak errespetatuz, hurrengo eginkizunak burutzera orientatuko da:

- a) Ikaslearen izaeraren erabateko garapena ziurtatzera.
- b) Errespetuan, askatasunean eta tolerantzian oinarritutako formakuntza konbidentzi printzipio demokratikoekin bat etorriz.
- c) Lan teknika eta ohitura intelektualen bereganatzea; hala nola, zientzia ezagutzak, teknikoak, giza – ezagutzak, historikoak eta estetikoak.
- d) Ekintza profesionalak burutzeko kaptazioa.
- e) Bakean, kooperazioan eta herrien arteko solidaritatean oinarritutako formakuntza.

2. artikuluko 3. puntuan honela jarraitzen du:

«Hezkuntza ekintza hurrengo printzipioen arabera eramango da aurrera:

- a) Formakuntza pertsonalizatua, ikaslearen formakuntza integrala suposatuz ezakeena ezagutzetan, abileziatan eta balore moraletan bizitzaren inguru

ezberdinetan; hau da, inguru pertsonalean, familia inguruan, sozialean eta profesionalean .

- b) Helburu akademikoen lorpenerako guraso eta tutoreen parte- hartzea eta kolaborazioa.
- c) Sexuen berdintasunean eta kultura aniztasunaren errespetuan oinarritutako formakuntza.
- d) Sormen ahalmenen eta espiritu kritikoaren garapena.
- e) Jarrera demokratikoen ohituren suspertzea.
- f) Legearen mugak baimendutako zentro bakoitzaren autonomia pedagogikoa zein irakaslearen ikerketa aktibitatea bere praktika eginkizunei dagokionean.
- g) Arreta psikopedagogikoa zein hezkuntza eta orientazio profesionala.
- h) Metodologia aktibo baten jarraipena non ikasleak aukera duen hezkuntza prozesuetan parte-hartzeko.
- i) Sistema osatzen duten zentruen heziketa eta apendizai prozesuen ebaluaketa.
- j) Ingurune sozial, ekonomiko eta kulturalarekin erlazioa.
- k) Naturaren errespetuan eta defentsan oinarritutako formakuntza.

3. artikuluko 5. puntuan, behar bereziko umeei egiten die erreferentzia:

Aurreko ataletan jasotako irakaskuntzak egokitu egingo dira behar bereziko ikasleen ezaugarrietara.

5.3 Hezkuntza inklusiboko datuak Espainian:

Espainian eskolatutako ume kopurua honako hau izan zen aztertutako hiru urteetan: (Martín et al, 2012)

—2008-2009 ikasturtea: 7.443.625 ikasle.

—2009-2010 ikasturtea: 7.608.292 ikasle (2,2%-ko igoera).

—2010-2011 ikasturtea: 7.758.047 ikasle (1,9%-ko igoera).

Eskola arruntetan integratutako behar bereziko ikasleen kasuan hauek izan ziren datuak: (Martín et al, 2012)

—2008-2009 ikasturtea: 107.998 ikasle.

—2009-2010 ikasturtea: 110.962 ikasle (2,7%-ko igoera).

Bestetik, ondoren aurkezten dira eskola berezietan eskolatutako behar bereziko ikasleak: (Martín et al, 2012)

—2008-2009 ikasturtea: 30.819 ikasle.

—2009-2010 ikasturtea: 30.643 ikasle (0,6%-ko jaitsiera).

—2010-2011 ikasturtea: 31.126 ikasle (1,6%-ko igoera).

Ondorengo taulan 2009-2010 ikasturteko datuak agertzen dira adieraziak, Espainiako hezkuntza ministerioak argitaratutakoak. (Martín et al, 2012)



Curso 2009-2010	Total	Titularidad pública	Titularidad privada
Alumnos escolarizados	7.608.292	5.142.439	2.465.853
Alumnos con NEE escolarizados	141.605	103.419	40.186
Alumnos con NEE integrados	110.962	86.476	26.486
▪ Educación Infantil	14.493	11.381	3.112
▪ Educación Primaria	54.080	42.942	11.138
▪ Educación Secundaria Obligatoria (ESO)	35.198	25.330	9.868
▪ Bachillerato	982	754	228
▪ Ciclos formativos Form. Prof.	1.451	1.137	314
▪ Prog. Cualif. Prof. Inicial	2.301	1.820	481
▪ Prog. Cualif. Prof. Educación Especial	2.457	1.112	1.345
Alumnos con NEE no integrados ¹²	30.643	16.943	13.700
▪ En centros de Educación Especial	25.814	12.801	13.013
▪ En unidades de Educación Especial en centro ordinario	4.829	4.142	687
Centros ordinarios que integran	26.015	18.053	7.962
Centros de Educación Especial	479	193	286
Unidades de Educación Especial en centros ordinarios	993	914	79
Profesorado de Educación Especial	8.988	5.624	3.364
▪ En centros de Educación Especial	7.410	4.093	3.317
▪ En unidades de Educación Especial en centro ordinario	1.578	1.531	47

(Martín et al, 2012)

6 Irakasle inklusiboaren profila:

Irakasle inklusiboaren profila, hau da, zelan izan beharko litzateke irakasle inklusibo eredugarri bat. Hau aztertzerako orduan komenigarria iruditu zait, hiru aspektutan banatzea, ezagupenen aldetik, izan behar dituen balore eta portaeren

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

aldetik eta azkenik praktika aurrera eramateko orduan kontutan izan behar dituen zenbait aspektu.

Ezagupenak:

- Estrategi pedagogiko aniztasun handia ezagutzen dute eta badakite bakoitza noiz egokia den ikasle bakoitzarentzat.
- Ikasleen ezaugarri linguistiko eta kulturalen ezagupen zabala daukate eta ikasle bakoitzaren ezaugarriak ikusita ikaskuntza maximizatzeko modu hoberena aukeratzeko gai dira.
- Ezgaitasun mota desberdinei buruzko ezagupenak dituzte, modu honetan ikasle desberdinen aurrean nola esku hartu jakiteko.
- Klasea nola antolatu eta maneiatzen badakite, denbora modu eraginkorrean erabiliz.
- Ikasleen ikaskuntza ebaluatzen badakite, bai modu formal zein informalean.
- Badakite ikasle desberdinak dituzten beharren aurrean baliabide egokiak diseinatzen eta aplikatzen
- Irakasten ari diren umeen garapenaren etapak ezagutzen dituzte.
- Irakaslegoaren garapen profesional jarraia izan behar da. Irakaskuntza prozesu jarrai eta aldakor bat, non irakasleek onartu behar dute bizi osoan zehar ikastearen erresponzabilitatea dutela.

Portaera eta baloreak:

- Enpatia eta errespetua izaten dituzte
- Ikasle bakoitzaren ikasketa erritmoa errespetatu eta indartzen dute.

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

- Ikasleriaren dibertsitatea baloratu, ikasleen arteko desberdintasunak errekurtsu eta hezkuntza balore bat dira.
- Ikasleria guztia lagundu. Ikasle guztien ikasketa prozesuari buruz espektatiba altuak dituzte, hau da ikasle guztiek beraien onena ematea espero dute.
- Taldean lan egin. Kolaborazioa eta talde lana ikuspuntu ezinbestekoak dira.

Praktika:

- Klaseko arauak eratzen dituzte, segurtasuna eta ikasleen arteko tratu berdintasuna bermatzeko.
- Denboraren erabilpen efektiboa egiten dute.
- Irakaskuntza teknika eraginkorrak erabiltzen dituzte, klaseak planifikatuz, ikasitako material berria ikasitakoarekin erlazionatuz.
- Irakasleen errorean aurrean modu positiboan erantzuten dute, kontzeptuaren ulermena lagunduaraziz.
- Ebaluazioa formatiboa erabiltzen dute irakaskuntza ajustatzeko eta ikasleen beharren arabera dibersifikatzeko.
- Ikasle guztien pate hartzea bultzatzatu behar dute.
- Argibideak era desberdinetara eskaintzeko gai izan behar dira, ikasle guztien ulermena ahalbidetuz.
- Ikasle guztiek aurrera eraman ditzaketen dinamikak proposatu behar dituzte.

7 **Inklusioa itsuekin:**

Ikusmen urritasunaren kontzeptua:

Ikusmenaren zentzumen organoari eragiten dioten urritasunak dira. Ikusmen urritasunak guztiok izan ahal ditugu, baina norbaitek ikusmen urritasuna duela definitzeko beharrezkoa da pertsona horrek %10 edo gutxiago ikustea betaurreko edo lentillen erabilerarekin. Esan daiteke bi sailkapen handi daudela:

- **B.1:** itsu totalak, inolako ikusmen aztarnekin.
- **B.2:** Ikusmen gutxiko pertsonak, %10a baino gutxiago.

Kontutan eduki behar dugun kontzeptu bat, jaiotzetatik eta eskuratutako itsutasunaren arteko diferentzia. Eskuratutako itsuak, ikusiz ikasi dituzten patroiz batzuk izango dituzte, baina ordea jaiotzetatik itsuak direnak betidanik ikasi dute dena ikusi gabe.

Kulturan sartu eta parte hartzea beti izan da itsuentzat helburu nagusi bat. Historian zehar, ikusmen falta ez da izan oztopo bat itsuek beraien arrastoa uzteko garai guztietan. Itsuentzat ukimena eta entzumena informazioa lortzeko elementu nagusiak bihurtzen dira. Ukimena da heuren daukaten bidea esperientzia estetikoak eta sormenezko esperientziak disfrutatzeko. Horregatik ukimen teknologia berrien aplikazioa, eboluzioa eta egokitzea, urteak pasatu ahala garatzen joan dira, eta hau hezkuntzarako ezinbesteko laguntza izan da. (García, eta Cañadas, 2009)

7.1 Itsutasunaren inklusioa hezkuntzan historian zehar:

Itsuentzako dokumentatutako lehen hezkuntza programa k.a 970.urtean martxan jarri zen Egipton, Al-Ashar unibertsitatean. Programa hau, 12 urtez irauten zuena, material guztiaren memorizatzean oinarritzen zen. Txinan, k.a bigarren mendean zehar, itsuak bateratzen hasi ziren kofradiak sortuz. Hauen helburua bateratzea eta beraien eskubideen alde borrokatzea zen. Grezian pentsatzen zuten jainkoak itsuak bedeinkatzen zituztela gertakizunak aurreikusteko doaiarekin. Erroman ordea hasieran itsuak eliminatzen zituzten, ez zutelako balio beraien herrialdea defendatzeko, baina gero karitateagatik mantentzen zituzten. (García, eta Cañadas, 2009)

Garai zabal honetan zehar, itsuak ez zuten jaso hezkuntza egokirik, ikusmen faltan oinarriturik, baina bai egon ziren egokituriko idatzi eta irakurtzeko sistemak lortzeko saiakerak. Erdi Aroan itsutasuna pobretasun eta eskaletasunarekin erlazionaturik zegoen. Errenazimenduan Girolano Cardanok (1517) egurrez egindako letran erabileran oinarritutako prozedura bat diseinatu zuen, eta honekin batera itsuen aldeko zenbait mugimendu hasi ziren. (García, eta Cañadas, 2009)

XVIII. mendearen erdialdean, Valentin Hauri 1784. urtean Parisen Institut National de Jeunes Aveugles sortu zuen. Institutu horretan letra normalak erliebean erabiltzen ziren, baina prozesu oso geldoa zen, eta Louis Braille itsuek irakurri eta idazteko metodo arinago eta erabilgarriago baten bila hasi zen. Barbier, (1822) armada frantsesaren ofiziala, institutua bisitatu zuen, berak puntuen bitartezko idazteko sistema bat asmatu zuen armadarekin komunikatzeko, eta nahiz eta zaila izan, pentsatzen zuen itsuentzako baliagarria izan zitekeela. Barbier sistema hori institutuari eskaini zion, Braillek sistema hori aztertu zuen, eta etorkizunean braille sistema

izango zena sortzen hasi zen. 1874.urtean instituzioak braille sistema onartu zuen, eta herrialde desberdinetan itsuentzako eskolak sortzen joan ziren. XIX. mendean zegoen hezkuntza aukera bakarra barnetegiak ziren, baina Howe Estatu Batuetan eta Johann Wilhem Klein Europan segregaturiko hezkuntza sistema hau kuestionatzen hasi ziren, eta gutxika eskola arruntetara joateko beharra garatzen joan zen. (García, eta Cañadas, 2009)

Ikusmen urritasuna dutenei dagokienez, 1908.urtean Londresen, *Myope school* sortu zen, kontsideratzen zelako hauek ezin zirela egon ez itsuekin ezta ikasle normalekin egon. Hasieran pentsatzen zuten ikusmenaren erabiltzeak ikusmen aztarnetan eragin txarra zuela, baina gero frogatu zen egoera guztiz kontrakoa dela. Gainera, demostratu zen sinboloen interpretazio hau praktikaren bidez ikasi behar zela. (García, eta Cañadas, 2009)

7.2 Itsu eta ikusmen urriko pertsonen hezkuntza Espainian:

Markatu behar dugu 1938ko abenduaren 13a, non ONCE (Organizacion Nacional de Ciegos Españoles), sortu zen. Honek estatuko eskola bereziak bateratu zituen, eta estatuak errekonozituriko lau eskola sortu zituen, Madriden, Sebillan, Alikanten eta pontebedran. Estatuaren aldetik, Autonomi Erkidegoetan, behar bereziko ikasleak orokorrean, eta itsuak bereziki transformatu, integratu eta orientatzeko ardura sortu zen. (García, eta Cañadas, 2009)

Apirilaren 7ko 13/1982 ezgaitasun fisikoak dituzten pertsonen integrazio sozialari buruzko legearekin, marko legal bat jarri zen, non ezgaitasunak dituzten pertsonen hezkuntza ondorengo printzipioak jarraituz egin behar zen: Normalizazioa, integrazio eskolarra, sektorizazioa eta indibidualizazioa. (García, eta Cañadas, 2009)

ONCEk 1983. urtean, "*Lineas generales en materia de politica educativa*" sortu zituen. Gero LOGSEk (Ley Organica de Ordenacion General del Sistema Educativo) 1990ko urriaren 3an aurreko legeko hezkuntza printzipioekin eta joera pedagogiko berriekin plan berri bat zehaztu zuen. ONCEk zuzenbide batzuk sortu zituen, eta horien artean ondorengoak zeuden: (García, eta Cañadas, 2009)

- Itsu eta urritasun fisikoak zituzten pertsonei material espezifiko eta teknologikoa ematea.
- Behar bereziko ikasleei material espezifikoak hornitzeko errekurtsio zentroak sortu.
- Ikasle, guraso eta hauekin egongo diren profesionalak, orientazio eta laguntza izango dute.

7.3 Itsu eta ikusmen urriko pertsonen hezkuntzarako baliabide eta bideak:

Braille sistema ezinbestekoa izan da historian zehar, pertsona itsuen interkomunikaziorako. Beraz, Louis Braillek sortutako sistema inflexio puntu bat izan zen itsuen hezkuntzan. (García, eta Cañadas, 2009)

Errekurtso tifloteknikoak:

Nahiz eta unitate tifloteknikoa 70.mendean agertu, 1985. urtean ONCEk (Organizacion Nacional de Ciegos) unitate hau aurrera eramaten du. Zentro hau produktu tifloteknikoen inportazio, distribuzio, mantentze eta inbestigazioaz

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

arduratzten da. Hezkuntzaren inguruan difusio gehien izan duten bideen artean, ondorengoa aurkitzen dugu: (García, eta Cañadas, 2009)

- Braille: Sistema honek urte asko ditu ikusmen urritasunaren arloan, eta ez dugu ahaztu behar braille dela itsuen elementu nagusia kulturarekin harremanetan jartzeko. Madrilen 1990. urtean ospatu zen konferentzian, braille inguruko puntu batzuk eman ziren: (García, eta Cañadas, 2009)

- Nahiz eta beste errekurtsio tiflotekniko batzuk agertu, braille jarraitzen du izaten itsuek daukaten bide nagusia hezkuntza lortzeko.
- Brailleen idatzitako liburuen kalitatea hobezina izan behar da.
- Formatu, tamaina... zuzendutako pertsonen beharretara egokituak izan behar dira.
- Umeentzako liburuak erakargarriak, moldagarriak eta motibagarriak izan behar dira.

Erliebean egindako materialaren garrantzia:

Erliebean egindako materialak bezala kontsideratzen dira, ukimenaren bitartez hauteman ahal diren materialak eta ez direnak brailleen idatzitako testuak. Madrilen 1989. urtean egindako mintegian, erliebean egindako materialen inguruan, errekurtsio honen inguruko zenbait ideia eman ziren: (García, eta Cañadas, 2009)

- Erreproduzioetarako eskala zehatz bat erabiltzea, honela objektuen dimentsioen inguruko nahasiak saihesteko.
- Material desberdinak nahastu behar dira, egitura desberdinak informazioa handiagotzen dutelako.

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

- Informazio argia ematen ez duten seinaleak saihestu behar dira, nahastera eraman ahal dietelako.
- Erreprodukzioa izan behar da, bat guztiarena, eta gero atalka.
- Inguruneak erreproduzitu ordez, irudikatu nahi diren azalerak altxatzea gomendatzen da.
- Kolorearen erabilera gomendatzen da, bereziki serigrafiaren teknikaren bitartez.

Inklusioaren laguntzarako azpiegitura:

Atal hau ondorengoetan desberdindu ahal dugu: (García, eta Cañadas, 2009)

- Itsuentzako errekurtsio materialak.
- Urritasun fisikoak dituztenentzako materialak.

Kasu batzuetan, ikasleak aurkezten dituen arazoan arabera, material espezifikoak edo egokitutako materialak erabiliko dira. Itsutasun totala ez duten ikasleak, pantailan agertzen dena handitzen duten materialak erabili ahal dituzte: (García, eta Cañadas, 2009)

- Ordenagailu egokituak.
- Telelupak ...

Material hauek eskuragarriak diren lekuetan kokatuak egon beharko dira, beti ere zentroaren ardurapean. (García, eta Cañadas, 2009)

Ikusmen urritasunak dituztenentzako materialak:

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

Pantailan agertzen dena handitzeko materialak



(García, eta Cañadas, 2009)



(García, eta Cañadas, 2009)

Boli-lupa

Lupa TV

Erradiolupa

Itsuentzako materialak:



(García, eta Cañadas, 2009)

Hitzegindako braillea

7.4 Itsu eta ikusmen urriko pertsonentzako heziketa fisikoa:

Orokortasunak:

Itsuak eta Ikusmen urritasuna dutenak, pertsona normalen ahalmen fisiko berdina dituzte. Baina aurkitu dezakegun arazo handiena ikusmen faltak ekarritako ikasteko zailtasuna da. Umeak helduak ikusten ikasten dute, kirolean berdina gertatzen da, eta beraz, ikasteko beste parametro batzuk bilatu behar dira, esperimazioan oinarritutakoak. Kontzeptu honek heziketa fisikoa markatuko du pertsona itsuetan, eta hau, orokorrean, ikasle bakoitzaren abilezien menpean egongo da. Gai izan behar gara esperientzia aniztasun hori eskaintzeko, horri ukimen, ikusmen, entzutezko eta afektibo informazio kanalak gehituz. Horrekin batera heziketa fisikoarekiko motibazio bat lortu behar da, pertsona hauek, hasierako momentu batean beldurra eta zailtasunagatik baztertu ahal dute heziketa fisikoa.

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

Helburu eta edukiak:

Helburuak orokorrean ikasle arruntenak bezalakoak izango dira, baina kontutan hartzeko kontzeptuak egongo dira:

- Espazioari beldurra kentzea.
- Espazioan orientatzea.
- Mugimendua entzutez antzematea.
- Ikusmen arrastoren bat badaukate, hau interpretatzea.

Edukiak ere ikasle arruntenak bezalakoak izango dira, gutxitan aldatu behar izango dugu programazio bat klasean itsu bat egoteagatik, baina bai egokitu beharko ditugu ariketak itsuak eduki berdinak bereganatu ahal izateko. Kontutan eduki behar dugu ezingo duela guztia egin, egongo dira zenbait gauza ezingo dituenak egin.

Informazioa:

itsu edo ikusmen urritasunak dituen ikasle batentzako irakasleak emandako informazioa ezinbestekoa izango da klasearen garapenerako. Normalean heziketa fisikoko klaseetan egoten diren ariketak ikusmen osagarri bat izaten du, hau aldatu beharko da, ahal dugun heinean, hitzezko eta informazio kinestesikoagaz. Hitza izango da ikasle eta irakasle arteko komunikazio bide nagusia, horregatik ondorengo aspektuak kontutan eduki behar ditugu:

1. Mugimenduaz informazio gehiago ematea, ikaslea autonomia izateko, eta berak bakarrik ariketa burutu ahal izateko.

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

2. Ariketen azalpen zehatzagoa, ariketa hobeto ulertzeko bere rola egokituz.
3. Joko eta ariketatan egitura argia erabiltzea.
4. Ez erabili keinu gehiegi, eta erabiltzekotan hitzarekin indartu.
5. Egin beharreko ekintzak hitzez azaldu, modu honetan jakiteko zer egin behar duen eta zer egiten duten besteak, eta modu honetan ariketan integratuko da.
6. Hiztegi zehatza izatea, ikaslea errazago ulertzeko, honen adibide bat kode finko bat izatea da, errepikatzen diren ariketei izenak jarri.
7. Egingo denari buruzko informazioa hasieratik ematea, egingo dena jakiteko eta aurreratu ahal izateko.
8. Espezifikotik orokorrera informazioa eman, ariketa baten orokortasuna ulertu ahal izateko lehenengo atalak azaldu behar dira.

Garatu beharreko beste aspektu bat ahotz tonua izango da, ikusi ezin dutenez, ahotz tonuak emango die informazioa irakaslearen egoera animikoari buruz.

Orientazioa espazioan:

Ikusi ahal duten ikasleak leku batean sartu bezain pronto ezagutzen dute, baina itsuekin ez da honela ematen, ez baditugu aurretik errekonozimendu saioak burutzen, ikasleak ezezagunarekiko beldurra izan dezake. Saio hauetan lekuaren eta elementuen ukimenezko errekonozimendua egingo da, hitzekin indartuz. Ikusmen urritasuna dutenekin espazioa errekonozituko da, eta zehaztuko dira orientazio bezala erabili ahal izango dituzten elementuak, argi puntuak, kolore kontrasteak adibidez. Orientazio hau indartzeko zenbait estrategia erabili ahal ditugu:

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

- **Irakaslearen bidezko orientazioa:** irakaslearen ahotsa orientazio puntu bat izan ahal da saioan zehar. Beti emango da hasierako informazioa leku beretik, klasearen amaiera irteeratik adieraziko da, materiala batzeko materiala dagoen lekutik adieraziko da, eta garrantzitsuena, lasterketa zuzenak egiterakoan ikasleari helmugatik deituko zaio etengabeko erreferentziak izateko.
- **Orientazio errefortzuak:** Ariketa konkretuetan zenbait orientazio errefortzuak erabili ahal dira, adibidez, ukituz antzeman daitezkeen marrak.

Materiala:

Zenbait ariketa burutzeko pertsona itsu batek materialaren egokitzapena behar izango du. Beste alde batetik, ikasle itsuak beraien erara ezagutu behar du materiala, ukimenaren bitartez jakingo du zer pisu eta tamaina duen, baita ere ze elementu osatzen duten eta bere funtzioa. Gainera materialaren kolokazioa errespetatzen badugu eta egunero leku berdinean daude gauzak kokatuak, ikasle itsua autonomoa izango da eta bera bakarrik hartu, erabili eta gorde ahal izango du. Material konkretuen artean azpimarratu ahal ditugu ondorengoak:

- Soinudun baloiak.
- Laguntza sokak: ikusi ahal duen beste batekin batera joango da itsua soka honen laguntzaz.
- Zorua ukimenez antzeman daiteken elementuekin markatu.
- Baloien orde zuzirik erabiltzea, hau pilota airean mantentzea eskatzen duten ariketetan boleibolean adibidez.

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

Ikusmen urritasunak dituztenekin, egokitzapena daukaten ikusmen konkretuaren arabera egingo da: Hobeto ikusten duten kolorea, material handiagoa eta kolore kontrasteak dituzten elementuak erabiliz.

7.5 Informatikak aurkezten dituen aukerak:

Egunero, informatikaren aurrerapenek itsuek informazioa lortzea eta kulturaren parte hartzea errazten dute. Mundu honetan itsuak gero eta perspektiba eta itzaropen handiagoak dituzte, ukimen eta entzumenaren bitartez errealitatea ikusgai bihurtzen da burmuinean. Gaur egun existitzen den material guztiaren artean, hauek azpimarratzen dira hezkuntzan erabilienak direlakoan: (García, eta Cañadas, 2009).

- DILE: Itsu eta ikusmen arrastoak dituztenentzako hiztegi bat da, 80.000 ahots eta 106.000 adiera dituen, eta gainera zenbait ahots sintetizatzaileekin eta pantaila handitzaileekin bateragarria da.
- E.P.A: Entziklopedia hiztun hipertextuala. Itsuentzako entziklopedia elektronikoa da, eta bertan informazioa ahotz sintetizatzaile baten bitartez transmititzen da.
- PAIN: Egunkari elektronikoa bat da. Formatu originala, itsuek irakurri ahal duten formatu baten bihurtzen du. Irakurleak ordenagailuaren bitartez hartzen du.

7.6 Esperientzia praktikoa berritzailea:

Sevillako unibertsitatean, Irakaskuntzako fakultatean, hezkuntza bereziko espezializazioa egiterakoan, konturatu ziren beraien ikasleak kontaktu gutxi izan zutela heziketa fisikoarekin. Beraien hezkuntza hobereana izateko, sentsibilizazioko

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

praktika baten beharra ikusi zuten, eta urritasun bezala, ikusmen urritasuna aukeratu zuten. Modu honetan, ikasleak bizi ahal izango zuten pertsona itsu batek sentitzen duena, ze zailtasun dituen, eta non behar duen laguntza. Hau kontutan hartuta, ondorengo da sortutako saioa: (Castro, eta Campos, 2008).

IKASTURTEA : Magisterioko lehen urtea, behar bereziko espezializazioa.

IKASLE KOPURUA : 60.

DENBORA : 55 minutu.

HELBURUAK:

- Itsuen ahalmenez ikasleak sentikortu.
- Ekintza eta jokoak bizi eta garatu, non ikusmen urritasuna dutenei egokituriko ahalmen motorrak lantzen diren.

EDUKIAK : Joko eta kirolak.

INSTALAZIOA : Sevillako jarduera fisiko eta kirolaren zientzien fakultateko kiroldegi eta gimnasioa.

MATERIALA : Telazko zapiak, konoak, gol-ball-eko pilota.

ANTOLAKETA: Klasea 20 pertsonako hiru taldeetan banatzen da, eta klasean zehar bikoteka kokatuko dira, hauetariko batek benda bat izango du begietan, eta bestea itsu laguna bezala ibiliko da laguntzen.

HASIERAKO INFORMAZIOA:

- Itsuarena egiten dutenek ezingo dute benda kendu ariketa burutzen duten bitartean.
- Ikasle guztiak pasatuko dira ariketa guztietatik.
- Itsu lagunak, denbora guztian egongo dira itsuen ondoan laguntzen, bakarrik utzi gabe.

BEROKETA: 10 minutu

Korrika jarraia lasaia eta mugikortasun articularra.

ATAL NAGUSIA: 35 minutu.

3 joko nagusi: “zapi jokoa”, “itsuentzako errelebo lasterketa” eta “GOL-BALL”.

Instalazioa: polikiroldegia.


-Zapi jokoa: Taldea bikoteek osaturiko bi taldetan banatzen da. Itsu eta itsu laguneko bikoteko bakoitzak zenbaki bat izango du, irakasleak zenbaki hori esatean, itsu lagunak bere ahotsa erabiliz, itsua orientatuko du zapia hartu arte. Jokoa irabaziko du zapia gehiagotan hartzea lortzen duen taldeak.

-Itsuentzako errelebo lasterketa: Taldea bikoteek osaturiko bi taldetan banatzen da. bikote bakoitzak eskutik helduta, lasterketa bat burutu beharko du lerro zuzenean kono batera heldu arte, ondoren konoa inguratu eta bueltatu behar dira hasierako lekuraino. Bikote bat amaitzean bestea aterako da, eta irabazten du bikote guztiak lehenengo amaitzen duten taldeak.


Instalazioa: Gimnasioa.

-GOL-BALL: Taldea bikoteek osaturiko bi taldetan banatzen da. Itsuak, taldeka belauniko kokatuko dira lurrean beraien zelai atalean. Itsu lagunak alboan kokatuko dira, eta beraien ahotsa erabiliz, itsuei esango diete zer alderantz bota behar diren pilota gelditzeko. Talde bat erasoan eta bestea


AURKEZPEN GRAFIKOA:



XO: itsu/itsu lagun bikoteak.
 → : ibilbidea.



XO: itsu/itsulagun bikoteak.
 □ : Irakaslea.
 → : Ibilbidea.
 △ : konoa.

<p>defentsan egongo da, erasoan dagoenak pilota jaurti behar du lurretik gola sartzeko intentzioarekin, eta defentsan daudenak pilota gelditu behar dute. Pilota gogorra da eta kaskabelantzeko bat dauka barruan itsuek entzun ahal izateko.</p>	<div style="border: 1px solid black; padding: 5px; margin-bottom: 10px;">  </div> <p>X: Itsu laguna. O: Itsua. □ : irakaslea. △: konoa. ● : Gol-Ball-eko pilota.</p>
<p>LASAITASUNERA BUELTA: 10 minutu. 3 hausnarketa:</p> <p>1- Bikoteka: Materiala batzen dugun bitartean, bikoteei beraien esperientziak elkarbanatzea ahalbidetzen zaie.</p> <p>2- Taldean: Lurrean borobil handi batean kokaturik, bakoitzak sentitutakoa eta zer pentsatzen duten esperientziari buruz elkar banatuko dute.</p> <p>3- Banaka: Idatziz, ikasleei eskatzen zaie beraien sentsazioak laburrean adierazteko orrialde erdian, eta zer pentsatzen duten praktikari buruz.</p>	

Sentsazioak:

Praktika begiak bendaturik bizi zuten ikasleak: (Castro, eta Campos, 2008)

- "Gauza asko sentitu ditut, sentsazio nahaste bat izan da, beldurra nora joan ez jakiteagatik, norbaitekin talka egiteko beldurra, jausteko beldurra, non kokatuta nengoen ziurtasun eza, lotsa, baina aldi berean poztasuna behar bereziak dituen pertsona batekin identifikaturik sentitzeagatik".

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

- "Nire sentsazioa beldurrezkoa izan da, pentsatzen nuelako horma bat zegoela denbora guztian nire aurrean, orientazio falta, entzumenaren garapena, ikusteko aukera ez zegoelako, eta poztasuna".
- "Lehenengo esatea esperientzia ezin hobea izan dela nire partetik, hau lagundu dit modu batean pertsona itsu bat sentitzen duena bizitzeko. Nahiz eta sentsazio negatibo batzuk izan ditudan: beldurra, segurtasun eza, urduritasuna ... nire itsu lagunaz helduta nengoenean seguru sentitzen nintzan".
- " Orientazio falta batez ere, beldur asko, eta baita ere gaitasunik eza, beste baten menpean nengoelako guztia egin ahal izateko".
- " Segurtasun gutxiko sentsazioa, beste pertsona baten beharra helburua lortu ahal izateko. Ez dut independentzia sentitu, laguntzeko norbait behar nuelako, baina beste aldetik poztasuna bizi ahal izan dudalako pertsona itsuak sentitzen dutena".

Itsu lagun bezala praktika burutu zuten ikasleak: (Castro, eta Campos, 2008)

- " Oso ondo pasatu dut, eta asko gustatu zait esperientzia. Rol honetan oso ondo sentitu naiz laguntza behar duten pertsonak laguntzen dituzulako, erabilgarria sentitu naiz. Ardura handia da itsua den pertsona batek zugar konfiantza duelako eta zu jarraitzen zaituelako".
- " Batez ere erantzukizuna sentitu dut, nire argibide eta atentzio menpean pertsona bat zegoelako. Denbora guztian egon naiz berari hitz egiten eta ukitzen, inoiz beldurra eta orientazio gabe ez sentitzeko".

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

- " Ondo pasatu dut, ikasi dut zer garrantzia duen itsu batentzako orientatzen jakitea, erantzukizuna eta adiskidetasuna".

- " Ardura eta beldurra ni ondo ez egin eta nire laguna zerbaitekin talka egiteari".

- " Inpotentzia sentitu dut ez nintzalako kapaza izaten nire bikoteko itsua ondo gidatzeko".

Konklusioak:

- Sentsazioak ikusita, esperientzia aberasgarria izan da, guztiz gomendagarria etorkizunean irakaskuntzaren munduan ibiliko direnentzat. Askotan ez dakigu ze punturaino behar duten gure laguntza beraien egoera bizi arte, eta honelako praktikak ezin hobeak dira.

- Esperientzia berritzaile honekin lortu da, irakaskuntzako lehenengo mailako ikasleak sentsibilizatzea zentzumen urritasun baten aurrean, konkretuki ikusmen urritasuna.

- Sentsazioak aztertuta, praktika motibagarria izan da, eta beraz, esan daiteke, helburua lortu dela, ondo pasatu dute eta gainera urritasun bat duen pertsona baten egoera bizi dute.

7.7 *Nire esperientzia:*

Aurten, praktiketan ibili naiz Askartza Claret ikastetxean, eta ohartu nintzan 2. DBHko klase batean ikasleitsu bat zegoela. Ni jadanik gradu amaierako lana zertaz joango zen banekien, eta erabaki nuen galdetzea ea praktiketako orduetatik aparte pasatu ahal nintzen klase horretatik. Oso gauza aberasgarria bezala ikusten nuen, bizitu ahalko nuelako gaur egun dagoen egoera. Baiezkoa jaso nuen, eta pare bat hilabetez egon nintzen klase horren jarraipena egiten.

Hasierako inpresioa:

Ni klase horretara heldu nintzen inolako esperientziarik gabe, ez nuen ordura arte bizitu horrelako egoerarik. Klasera heldu bezain pronto konturatu nintzen ni pentsatzen nuena baino askoz independenteagoak direla. Nire ideia zen gauza guztietarako laguntza behar zutela, eta ezin zutela gauza gehiegirik bakarrik egin. Ezin nintzen errealitaterik urrunago aurkitu, egia da zailtasunak dituztela gauza batzuk egiteko, eta baita laguntza behar dutela zenbait ekintza egiterakoan. Baina harrিতua gelditu nintzen berak bakarrik burutzen zituen gauza guztiak ikusita, eta zelan mugitzen zen ikastetxetik inoren laguntzaren beharrik gabe.

Naiz eta ez ikusi, beste zentzumenen bidez gauza guztiez konturatzen dira. Lehenengo egunean polikiroldegira joaterakoan, irakaslea berarekin hitz egiten zegoen, eta ez zion ezer esan niri buruz, baina bera konturatu zen beste bat zegoela beraiekin batera ibiltzen, eta galdetu zidan ea nor nintzen. Egia da ez duela ikusten, baina eguneroko bizitza egiteko ez dauka inolako zailtasunik. Bere makilarekin lagunduta mugitzen da ikastolan zehar, eta telefono mugikorra dauka beste ikasle guztiak bezala.

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

Nik esperientzia hau bizitu baino lehen, nahiko zaila ikusten nuen itsu baten inklusioa, eta gehiago heziketa fisikoan, non zailtasunak askoz gehiago diren. Baina argia ikusi nuen, eta modu baten, esperientzia hau izan zen itsuen atala lanean sartzera motibatu ninduen. Hasieran inklusioan orokorrean zentratzea pentsatu nuen, baina egoera hau bizitu ahal nuela ikusita, interesgarria iruditu zitzaidan itsuen inguruko atal bat sartzea. Askotan, ezjakintasunagatik aurka agertzen gara zenbait egoeren aurrean, eta gauza berdina gertatzen da inklusioaren kasuan.

Egia da zailtasunak daudela, eta ez dela ikasle normal baten egoera berdina, baina ikasle guztien artean desberdintasunak daude, eta horiek kontutan hartuta klaseak egokitzekeo kapazak izan behar gara irakasleak. Beraz abiapuntu honekin, edozein pertsonak, bere ezaugarriekin ikasteko eskubidea du, eta gu arduratu behar gara ahalik eta kalitate handiagoko hezkuntza ematen. Horretarako mugitu egin behar gara, arlo honetan ezjakintasun handia dagoelako, baina aldi berean ikerketa asko daude laguntza bezala erabili ahal ditugunak.

Egoera soziala:

Itsua izanik, ez dauka bere kideek dituzten erraztasunak besteekin erlazionatzeko. Egia da klasean bere lagun guztiak harrituak geratzen direla egiten dituen gauza guztiak ikusita. Guztiak pentsatzen dute meritu oso handia duela, baina erlazionatzerako orduan zailtasun asko ditu. Klasean talde desberdinak daude, eta bera apur bat aparte dago. Laguntza behar duenean laguntzen diote, eta ez dira berarengandik aldentzen, baina egia da atsedenetan apur bat aparte gelditzen dela. Gainera, taldean egin beharreko ekintzak burutzean, irakasleak sartu behar du talderen baten, normalean taldeetatik kanpo gelditzen delako.

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

Klaseko beste umeentzako ere egoera berezia da, eta askotan ez dakite ondo nola jokatu. Gainera gazteak dira oraindik eta ez dira gauza askoz ohartzen. Hemen ere irakaslearen papera oso garrantzitsua da, egoera ondo bideratzeko guztientzako hoberena bilatuz. Irakaslearen papera nire ustez ez da klasean bakarrik geratu behar, honelako gaiak tratatzea garrantzitsua ikusten dut ere. Azkenean eskolan ikasteko daude, baina ere giza baloreak zehazteko modu baten. Egia da arlo sozial honetan klaseko kideek erruaren parte bat dutela, ez direlako gehiegi beragana hurbiltzen. Nire ustez aurretik aipatutako nola jokatu ez dakitelako, eta desberdin ikusten dutelako. Baina beste erru parte bat berea da, ez duelako gehiegirik egiten besteekin erlazionatzeko. Besteak baino zailago duela argi dago, eta horregatik besteen laguntza egokiena izango litzateke, baina berak ere jarrera izan behar du, eta nik hor ikusten dut akatsa kasu honetan.

Zailtasunak:

Urritasun bat izanik, logikoena da pentsatzea berarentzako ekintzak burutzea beste ikasleentzako baino zailagoa dela. Beraz, zailtasun desberdinei aurre egin behar zaie klaseak diseinatzeko orduan:

1- Denbora: Heziketa fisikoko klaseetan denbora funtsezko gauza bat da, denbora asko galtzen delako, eta azkenean klaseko denbora erreala oso gutxi da. Behar bereziak dituen ikasle bat daukagunean, berari denbora eskaini behar zaio, bere ekintza guztiz egokitua egon beharko delako. Ikasle itsu batek denbora gehiago behar du ariketak egiteko eta barneratzeke, eta beraz, ondo kudeatu behar dugu denbora, guztiek praktika egoera hoberenetan burutu ahal izateko. Denbora asko egon behar ginen berarekin, eta askotan beste ikasleak nahiko libre uzten genituen. Modu

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

honetan, nire laguntza klasean oso positiboa izan zen, ni berarekin jartzen nintzelako eta ez genuen inolako denborarik galtzen.

Egokiena izango litzateke behar berezietan espezializaturiko irakasle laguntzaile bat egotea ikastetxean. Ez da klase guztietan egon behar, baina bai jarraitu beharreko argibide batzuk ematea. Honela programazio guztiz egokitu eta eraginkorra lortuko litzateke, eta irakaslea ez litzateke behar bereziak dituen ikaslearen gainean denbora guztian egon behar.

2- koordinazioa: Itsua izanik, koordinazioan zailtasunak zituen ariketak burutzerakoan, asko kostatzen zitzaion zenbait ariketa egitea. Besteek baino denbora eta saiakera gehiago behar zituen helburuak lortzeko.

3- Ariketan integrazioa: itsua klasean beste bat dela eta berdina egin behar duela erraza da esatea, baina gero praktikara eramaterakoan oso zaila da. Pertsona itsu batek taldekako ariketa baten ezinezkoa bihurtu daiteke. Nire kasuan, bere klasean dantza bat prestatu behar zuten taldeka musika konkretu batekin. Nota ebaluatzeko sinkronizazioa, koordinazioa ... kontutan hartzen ziren, eta beraz oso zaila zen talde baten sartzea. Azkenean erabaki genuen berak banaka koreografia bat prestatzea gure laguntzarekin. Berak egin nahi zituen pausuak esaten zituen eta gu apuntatzen genituen. Gehienbat ezjakintasunak bideratu zigun egoera honetara, baina modu honetan lortu genuen dantza burutzea eta ez alde batera geratzea.

Dantzaren kontuan banaka egiten zuenez, egon ginen pentsatzen, eta erabaki genuen "Goal Ball" saio pare bat prestatzea bera besteekin parte hartu ahal izateko taldekako ekintza batean. Denak begiak estalita zeudela burutu genituen klaseak, eta askori esperientzia asko gustatu zitzaien.

4- Espazioa: Espazioa ikasle normal batek begirada batekin ezagutzen du, baina itsu batek ez dauka erraztasun hori. Beraz, bera laguntzen espazioaren azterketa bat egin behar genuen ariketa burutu baino lehen. Gainera lurrean markatzen genituen sokekin eremuak, berak antzeman ahal izateko non dauden mugak.

5- Ezin egin azalpen grafikorik: Azalpenak ematerakoan dena hitzekin azaldu behar zen, berak ezin zuelako ikusi zer egiten zenuen. Egiten genuena zen, mugimendu guztiak hitzez deskribatu, eta honela beste ikasleak eredia ikusi ahal zuten, eta berak ideia bat zeukan hitzezko deskribapenaren laguntzaz.

6- Ariketak bakarrik ezin burutu: Irakasleak planteaturiko ariketak ezin zituen bakarrik burutu, eta klaseko batekin eskutik helduta egin behar zituen.

Baliabideak:

Urritasun bat izanda ez dugu bakarrik egokitu behar ariketa, baizik eta askotan materiala ere egokitu behar da ariketa burutu ahal izateko. Materialak beste zentzumenen bidez antzeman ahal diren ezaugarriak izan behar dituzte. Hauek dira guk ikastolan erabilitako baliabideak hezkuntza prozesua eraginkorra bihurtzeko:

- Kaskabeldun baloiak: Baloi normalak erabili ordez, itsuekin barruan kaskabel bat duten baloiak erabiltzen dira, entzumenaren bidez baloiaren kokapena zein den jakin ahal izateko.

- Sokak lurreko eremuak markatzeko: Aurretik esandako moduan, itsuek ezin dute espazioa begirada batekin aztertu, eta beraz mugak ezagutzeko sokak jartzen genituen lurrean.

- Telefono mugikorra: Bere telefono mugikorraren itsura besteen berdina zen, baina pantailan gauzak agertzeaz aparte, mugikorrak hitz egiten zion. Honela berak erabili ahal zuen mugikorra eta aplikazioak beste pertsona guztien antzera. Dantza egiteko musika bilatzerakoan hau oso garrantzitsua izan zen, eta berak nahi zuen musika aurkitu ahal izan zuen.

- Makila: Itsu guztiek duten makila bat da, ibiltzerakoan aurretik eramaten dute lurretik, eta oztopoak antzematen dituzte.

Ondorioak:

- Niretzako oso esperientzia aberasgarria izan da, etorkizunean aurkitu ahal ditudan egoerak ikusi eta bizi ditudalako. Ni aurretik ez naiz kontaktuan egon honelako kasuekin, eta asko ikasi dut.

- Askok aldatzen da pentsatzeko era honelako kasuak hurbiletik ikusten direnean, nik oso zaila ikusten nuen itsu baten inklusioa heziketa fisikoan. Baina konturatu naiz, gauza guztiak bezala, lortu ahal dela, eta heziketa fisikoaren onurak ez direla ezinezkoak urritasun bat izateagatik, bakarrik bilatu behar da modua.

- Hezkuntzaren mundua gustuko dugunontzat erronka bat izan behar da urritasunak dituzten ikasleen inklusioa. Gainera ondo sentitzen zara laguntza behar

duen norbaiten alboan egonda, baliagarria sentitzen zara. Etorkizuna gu gara, eta gure menpe egongo dira aldaketak, beraz nahi dugunaren alde borrokatu behar dugu.

- Oso onuragarria da irakasle laguntzaile bat izatea klasean, behar bereziak dituen ikasle bat izatekotan. Honela ez da denborarik galtzen, eta guztiz banakako tratua jaso ahal dute ikasle guztiak, beraien ezaugarrietara egokiturikoa.

- Taldekako ariketak oso zailak dira aurrera eramateko itsu batekin. Honi aurre egiteko guztiak egoera berdinean jarri, edo erdia begiak estalirik jarri eta beste erdia laguntzaile bezala, eta bikoteak osatuz.

- Itsuentzako sortutako kirol eta ariketak burutzea saio batzuetan aberasgarria da, bai itsuentzat eta baita urritasunik gabeko ikasleentzat. Modu honetan guztiak itsuaren egoeran jartzen dira eta hobeago ulertu ahal dute zer sentitzen edota bizitzen duen.

- Nahi izan ezkerro edozer lortu daiteke, bakarrik sartu behar dira orduak, itsua izateak ez du esan nahi zenbait gauza ezin dituzula egin. Bakarrik aurkitu behar da modua, eta horretarako hezkuntzaren etorkizuna izango garenen esku hartzea ezinbestekoa da.

7.8 Proposamen praktikoak:

Behin bibliografia zabal bat irakurrita, eta inklusibitatea barrutik bizi ondoren, proposamen praktiko egitea ezinbestekoa ikusi dut. Asko idazten da urritasunei buruz, eta baita ere inklusiorantz eman diren pausuei buruz, baina nik hutsunea

praktikara eramateko orduan ikusten dut. Beraz, praktikan jartzeko erabilgarriak izan ahal diren zenbait proposamen ipiniko ditut jarraian:

- **Sentsibilizazioa:** Behar bereziak dituen ikasle bat, beste guztiekin konparatuta desberdina da, eta honek arazoak ekarri ahal dio klaseko kideekin erlazionatzerako orduan. Honetarako irakaslearen papera oso garrantzitsua da, ikasle guztiari urritasuna zertan datzan argi utzi behar zaie, ez dela barre egiteko zerbaite, baizik eta guztiz kontrakoa, beraien laguntza eskertzen dela behar izatekotan.

- **Ariketak:** Ikusmen urritasuna duen pertsona batek, ezingo ditu egoera berdinean beste ikasleak egiten duten gauzak egin. Ondorioz, itsuentzako sorturiko ariketa edo kirolak sartu ahal ditugu programazioan, eta aldi berean ohiko ariketak egokitu. Ez da egokia izango albo baten begiratzen gelditzea edota arbitro lanak burutzea, parte hartzea ezinbesteko da heziketa fisikoaren helburuak lortzeko.

Ariketak egitean klaseko kide batekin joango da eskutik helduta, aurretik aipaturiko itsu laguna kontzeptua. Egokiena da itsu lagun hau klase bakoitzean desberdina izatea, honela erlazioak errazten dira klasekoekin, eta ez da oztopo bat ikasleen garapen motorrerako.

Noizbehinka itsuentzako sorturiko ariketak sartzea programazioan aberasgarria izango da ikasle guztientzat. "Goal Ball" eta horrelako jarduerak dibertigarriak dira, eta ez dute ikasleen garapena oztopatzen. Gainera aurretik aipaturiko sentsibilizazio prozesu garrantzitsu hori errazten dute, ikasleak ikusmen urritasuna duen kidearen lekuan jartzen direlako eta bere egoera bizitzen dute. Baina ez da ariketa hauetaz abusatu behar, hori urritasun gabeko ikasleentzako oztopo bat izango litzatekelako.

Ezin dugu beti "caballito Blanco" bezala eduki ariketatan, honek arazoak ekarri ahal dizkiolako bere lagunekin. Ezin da erraztasunez beteriko bide bat bihurtu, honela alde batetik ez dituelako beharrezko helburuak lortuko, eta bestetik erlaxatuko delako. Gainera, hau ez da egokia izango ez klasera, ez eguneroko bizitzara begira, zailtasunak gainditzen ikasi behar duelako ere.

Baita ere, ezingo gara denbora guztian behar bereziak dituen ikaslearen gainean egon, beste ikasleak alde batera utziz. Urritasun bat ez izateak ez du esan nahi gauza guztiak egiten dakitela, eta nahiz eta modu baten izan, ikasle guztiak behar dute irakaslearen laguntza. Bai eskaini ahal diogu denbora apur bat gehiago, baina egokiena laguntza irakasle bat edukitzea izango litzateke.

- **Materiala:** Behar bereziak dituztenentzako espezifikoak diren materialak existitzen dira, eta horiek ikastetxean edukitzea egokiena izango litzateke. Baina gehienetan, errealitateak ez digu hain errez jartzen, eta inolako materialik gabe aurkitzen gara ikastetxera lan egitera joaterakoan. Hau da bakoitzaren irudimena martxan jartzen den momentua, etxetik edo ikastolatik ditugun materialekin egokitzapenak egin ahal ditugu.

- **Helburuak:** Helburuak heziketa fisikoan, askotan finkoak dira guztientzat, baina nire ustez ikasle bakoitzari egokiturikoak izan beharko lirateke. Bakoitzaren gaitasunak desberdinak dira, eta nire ustez heziketa fisikoak bilatu behar duena hobekuntzaren ebaluaketa da. Ikasle askok nahiz eta asko saiatu ez dute lortzen beste batzuek lasai lortzen dituzten emaitzak.

Honekin, urritasunen bat duen ikasle batekin askoz malguagoak izan behar gara. Hobekuntza eta gogoak egon diren neurtu, nahiz eta bere kideak lortzen dituzten emaitzak ez lortu.

8 Bibliografía:

- Amades, J., Blanco, A., Huguet, D. Educación para ciegos y deficientes visuales. *Departamento de educación física-ONCE*
- Amanda Watkins, (2012) Perfil profesional del docente en la educación inclusiva. *Agencia Europea para el Desarrollo de la Educación del Alumnado con Necesidades Educativas Especiales*. Odense, Dinamarca.
- Bersanelli, S. L. (2008). La gestión pública para una educación inclusiva. *REICE-Revista Electrónica Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, 6(2).
- Block, M., Obrusnikova, I. (2007). Inclusion in Physical Education: A Review of the Literature From 1995-2005. *Adapted physical activity quarterly*. 24. 103-124.
- Castro, N., & Campos, M. C. (2008) Una experiencia Práctica innovadora: sensibilizar a los videntes sobre las capacidades de los invidentes. *Universidad de Cordoba*.
- Dussan, C. P. (2010). Educación inclusiva: Un modelo de educación para todos. *ISEES: Inclusión Social y Equidad en la Educación Superior*, (8), 73-84.
- Escudero Muñoz, J. M. (2012). La educación inclusiva, una cuestión de derecho. *Educatio Siglo XXI*, 30(2), 109-128.
- French, R., Sherrill, C. (1995). Contact theory and attitudes of children in physical education programs toward peers with disabilities. *Adapted physical activity quarterly*. 12,323-332.
- Gall, K., LaMaster, K., Kinchin, G. et Siedentop, D. (1998). Inclusion Practices of Effective Elementary Specialists. *Adapted physical activity quarterly*. 15. 64-81.
- García, J. I., & Cañadas, D. P. (2009). La formación de ciegos y discapacitados visuales: visión histórica de un proceso de inclusión. *El largo camino hacia una*

Goikoetxea Martinez, Oskar, ogoikoetxea003@ikasle.ehu.es

educación inclusiva: la educación especial y social del siglo XIX a nuestros días: XV Coloquio de Historia de la Educación, Pamplona-Iruñea, 29, 30 de junio y 1 de julio de 2009 (pp. 453-462). Universidad Pública de Navarra.

- Gomendio, M., Sesma, J. (2011). Heziketa fisiko inklusiboa bigarren hezkuntzara egokitua. *EHU-UPV*. 1-244.
- Gonzalez, S. (2002). Deportes para ciegos y deficientes visuales. *ONCE, Organización Nacional de Ciegos Españoles. Direccion administrativa, Malaga*.
- Heikinaro, P., Sherrill, C. (1994). Integrating children with especial needs in physical education: a school distric assessment model from finland. *Adapted physical activity quarterly*. 11. 44-56.
- Kodish, S., Hodges Kulinna, P., Martin, J., Pangrazi, R., Darst, P (2006). Determinants of Physical Activity in an Inclusive Setting. *Adapted physical activity quarterly*. 23, 390-409.
- Mata, F. S., & Ortega, J. L. G. (1999). Dilemas sobre los profesores en educación especial. *Rev. Interuniv. Form. Prof*, 35, 125-143.
- Ríos Hernández, M. (2009). La inclusión en el área de educación Física en España. Análisis de las barreras para la participación y aprendizaje. *Ágora para la EF y el deporte*.9, 83-114.
- Toboso Martín, M., Ferreira, M. A., Díaz Velázquez, E., Fernández-Cid Enríquez, M., Villa Fernández, N., & Concha, G. D. E. (2012). Sobre la educación inclusiva en España: políticas y prácticas. *Intersticios, Revista Sociologica del Pensamiento Crítico*, 6(1), 279-295.